




- **Juan Carlos Moreno Cabrera:** «Hizkuntzalaritzan sarritan kontzeptu zientifikoak erabiltzen dira ideologia sustatzeko»
- **Pier Paul Berzaitz:** «Orain denok kontsumitzen dugu kultura, baina parte hartzen duzularik, beste indar bat hartzen du»
- **Akitaniako bozak** Etorkizuneko politika baldintzatzeko unea
- **Musika** 36ko Gerraren oroimena gaurko doinueta
- **Garraioa** Kamioilariak deslokalizazioaren biktima



IMANOL MURUA URIA

«Prozesuak aurrera egin izan balu, Madrilek errespetatuko ote zuen Loiolan hitzartutakoa?»



Loiolako negoziazio prozesuaren kronika

2005 eta 2007 urte artean ET Aren eta Espainiako Gobernuaren arteko solasaldiak izan ziren batetik, eta PSE-EE, EAJ eta Batasunaren artekoak, bestetik.

Prozesuaren kronika zehatza egin du Imanol Murua Uria kazetariak *Loiolako hegiak* liburuan, orain arte inor gutxik ezagutzen zituen datuak argituz.

Elgoibarko Txillarre baseritik, Loiolako basilikaraino, Oslo eta Genevako hoteletan barrena.

Loiolako negoziazioan protagonista izandako Jesus Egiguren, Iñigo Urkullu eta Arnaldo Otegiaren testigantzak.

Loiola

"Azaroaren 8ak akordioaren eguna izan behar zuen. Jesusen Lagundiko arduradun gutxi batzuek ere bazekiten hori, eta horregatik zegoen egun hartan Arupe Etxean ohi baino jesulagun gehiago: Jose Mari Etxeberria Loiolako burua ez ezik, Juan Miguel Arregi jesulagunen probintzia burua ere Loiolan zen, akordioa noiz itxiko zain, Erromako buruzagi nagusiarekin bitartekari lanak egiteko gertu. Xanpain botila batzuk freskatzen ere jami zituzten, Arupe Etxeko sukaldetako hozkailuan. Baina bilera uste baino luzeago joan zen eta, negoziazio gelatik oronek batzuk ere entzuten hasi zirenean, zerbait okertzen hasi zela ulertu zuten".

eskaintza berezia

BERRI Aren eskutik **15 €**

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu

www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

- 4 Deabruaren abokatua: Mixel Etxekopar.**
Sustrai Colina.

Pertsonaia

- 10 Pier Paul Berzaitz: "Bere artearen sortzeko kapable den gizadiak etorkizun ona esperatzen ahal du".**
Miel A. Elustondo.

Iritziak

- 17 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
18 Ttakun (h)errenka. Kolektibitate kutsakorra.
Ana Urkiza.
19 Telomeroen tamaina. Carmen Valois.
Bi erronka. Joxemari Ostolaza.
20 Historia tematia da. Imanol Alvarez.
Aldarte. Joxerra Garzia.
21 Zirtak. Subordinazioaren alde. Angel Erro.
22 Bertso berriak. Jubilazio adina atzeratzeari jarriak.
Jexux Mari Irazu.

Erdiko kaiera

- 26 Haragiz eta klorofilaz egindako behiak.** Ion Olano.
28 Joxemiel Bidador, noranahiko intelektuala.
Gorka Bereziartua.
29 Diskoak. Iker Barandiaran.
30 Liburuak. Xabier Etxaniz Erle.
31 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
32 Ezpalak. Jon Torner.
33 Abarrak. Estitxu Eizagirre.
34 Zientzia eta teknologia. Joxerra Aizpurua.
35 Landareak. Jakoba Errekondo.
36 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 41 Juan Carlos Moreno Cabrera: "Hizkuntzalaritzak lagundu dit aurreiritziak gainditzin".** Onintza Irureta.
44 Eskualdeetako bozak aro politiko berriaren iragarle.
Mikel Asurmendi.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. "Change Your Bank": bankua aldatu edo bankuz aldatu. Pello Zubiria.

5 Garraioa | Mikel Garcia

Krisi ekonomikoa ez da kalte bakarra izan lurreko zama garraiolarientzat. Deslokalizazio politikak, gizartearen kontsumo ereduak eta azpiegituren hazkuntza jasangaitzak kamioilariak dituzte jomuga. Eguna pasa dugu eurekin, sektoreak bizi dituen une latzak gertutik ezagutzeko asmoz.



15 | Zabor mendietako biztanleak iruditan

Mikel Garcia

23 | Memoria historikoa XXI. mendeko musikan

Lander Muñagorri

50 | Azkena

Iñaki Antiguiedad

37 | Imanol Murua Uria | Mikel Asurmendi

Loiolako negoziaketan solaskideek harreman politiko oso handia lortu zuten, esan digu *Loiolako hegiak* liburuaren egileak. Halere, gatazka politikoa konponbidean jartzeko sakoneko gauzak aldatu beharko direla gehitu du, joko arauak aldatu beharko direla.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte.

HELBIIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Iparr Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Azaleko argazkia: Dani Blanco.

 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza dinuz lagundua	 GIPUZKOA zurekin, aurrera	 euskaraz bai
 kutxa		



“Xiberotarrak ez gara raperoak baino fosilduagoak”

Mixel Etxekopar | Kromañon txirularia

Bizi liteke dolu gabe.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Allande Sokarros

Noiz jeikiko dira egiazko xiberutarrak tirano arrotzen ohiltzeko?

Jeikirik dira egiazko xiberutarrak, egiazko euskaldunak, baina besteen artean bizitzeko. Ez dakit Matalazek barkatuko didan, baina bizi gaitezen denak elkarrekin.

Euskal Herriaren bihotz purua manexekin konpartitzeko prest?!

Beste eskualdeetan bezainbat astopito bada gurean, ez bat gehiago, ez bat gutxiago. Gure buruaren garaikide gara, ez gara raperoak baino fosilduagoak. Zer uste duzu egiten dugula maskarada eta pastoralik ez den urteko 363 egunetan?

Oraintxe duzu euskaldun askoren duda existenzial bat argitzeko parada...

Gure biharko zortea zuzendu, kudeatu, edo pairatu nahian bizi gara. Errealitatea eta pertzepzioa bi mundu dira, eta Euskal Herria ez da ideiaz ideia eraikitzen, jendez jende baizik.

Zer zara zu, alternatibaren liderra edo lider alternatiboa?

Alternatibitatea ez, alteritatea da gakoa. Traiziotik duen tradizioa ez al da alteritatea? Zer zentzu du bestela lehengoei jasoa egungoei besterik gabe emateak?

Ai, ai, ai, esango duzu berriz garrantzitsuegia dela artea politikariei uzteko.

Inauteria ere garrantzitsuegia da haurrei bakarrik uzteko. Ez da ahanzi behar kultur politika baino lehen bazela kultura, eta kultura baino lehen bizia. Egokitzea da gure zortea,

beti sortzaile bizi ahal izateko gure ipurdiei ostikoak ematea.

Ostikorik ematen ez dutelako dituzu txoriak maisutzat?

Hil ondoan baizik ez didazue sinetsiko. Kontserbatorioak eta diplomak modan daudela? Gure herriko parkea goi-mailako kontserbatorioa da. Horregatik ez dute nornahi onartzen.

Xiru festibalerako bederen ateak ireki beharko dituzue, ezta?

Euskal nortasunak munduarekin elkarrizketa izan dezan sorturiko laborategia da Xiru. Ez da Euskal Herria Zuzenean, baina mundua zuzenean dugu guk!

Zer da egungo munduaren zuzeneko soinua?

Joan den 30.000 urtetan kromañonak gara eta soinu kutsadurarekin ez dugu ez deus irabazi, ez deus galdu. Etengabeko sinfonia horren pertzepzioa lortzea da mundua poetizatze bidea. Soinua poesia da.

Ziur txirularekin duzun harremana ere poetikoa dela.

Ez nuen nik erran anitz maite duenak anitz sufritzen duela. Amodio azkarregi baten ondorioak belarriko minez ordaintzen ari naiz. Pentsa, kontrabaxua erosi berri dut!

Kontrabaxuarekin ala gabe, Xiberua gora eta Xiberua behera segituko duzu zuk...

Han sortu, han bizi, eta hil arte bederen han biziko naizelako. Hori bai, Xiberuak hautatu ninduen ni, ez nik bera. ■

• ASTERO GAIA •

Lurreko zama garraioa

Kolapsora daraman kontsumo eredua

2008ko gasolio igoera neurrigabearekin hasi zen krisia garraiolarientzat. Irabazien jaitsiera, gastuen igoera, lan eskasia eta lehia basatia etorri dira gero. Baldintza kaskarren menpe, eredu jasangaitz baten gurpilean erori da sektorea: merkantzia ahalik eta merkeen garraiatzen du deslokalizazioaren politikak, eta kamioiz betetzen ditu munduko errepideak.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Dani Blanco

Iñaki Irastorza 24 urte daramatza kamioilari. Irudian, Pasaiko portuan, deskargatzeko zain.



GOIZEKO 6ETAN hartu du kamioia Iñaki Irastorzak, ohiko legez, Olaberriaren duten aparkalekutik. Autonomo izan arren, bertan dagoen burdin fabrika batentzat egiten du lan, berak eta Burni garraiolarien kooperatiba osatzen duten beste 17 bazkideek eta 28 kamioilariak. Fabrikak ekoizten dituen piezak alde batetik bestera eramatea du lan, baina azkenaldian ez dago pieza asko eroateko. Burdin enpresak egin ohi zituen bost txandak hiru bihurtu ziren krisiarekin. Baina erreleboak areagotu egin dira duela gutxi, aparkalekutik makina hotsa entzuten dela dio Irastorzak, eta hori berri ona da, ekoizturiko pieza horiek guztiak norabait garraiatu beharko dituztelako lehenago edo beranduago.

Aurreko egunean kargatutako burdin piezekin, Pasaiaiko portura abiatu da 45 urteko zegamarra. Soldaduska bukatu eta aitagina-rrerebaren lanbideari helduz, kamioia erosi zuen duela 24 urte. Zilar koloreko hizki handitan bere izena aurrealdean daraman kamioi hau hirugarrena du jada, ibilgailua ez baita sekula guztiz ordaintzen, bat utzi eta beste bat erosi beharra izaten da. Gizon baikorra da Irastorza, eta kamioiak autoak baino bista hobeak dituela nabarmendu du, Euskal Herri osoa egun bakarrean zeharkatzen duela batzuetan, leku desberdinetan gosaltzeko aukera ematen diola... "Iragarkiak zioen: 'Gidatzea gustuko duzu?', bada, orduan, ez erosi BMWa, kamiona baizik". Baina oso lan gogorra dela aitortu digu. Ordu asko sartu behar dira, eta garai batetik ona asko areagotu da presioa entregetan: "Segituan izan behar du beti. Bidaiekin denbora oso estu daukate neurtuta bezeroek, ez dute kontuan hartzen ezustekoa, eta beti dago aurreikusitako gabeko gertakarien bat!".

Goizeko 7etan iritsi da Pasaia; mugimendu gutxi dago portuan. "Lehen 500 bat kamioi izango ziren guztira portuan deskargatzen, orain 100 edo gutxiago... Egunkariak esan du %26 jaitsi dela 2009an portuko jarduna, baina zera ere! %70-edo gutxituko zen!", dio Irastorzaren lankideetako batek. 18 metro luzerako zama aparkatu eta solasean ari dira garraiolariak. 30 bat kamioi daude ilaran, Ingalaterrarako barkuan eramango dituzten piezak noiz deskargatuko, baina deskargarako makina bakarra erabiliko dutela erabaki da portuan, eta beraz luze joko du itxaronaldiak.

Takografoa euskaraz eramateagatik Jaenen isuna jaso zuen kamioilariaren gain, krisia dute hizpide: kamioilari daramatzan hamabost

urteotan okerreana 2009a izan dela dio batek; 1984ko eta 1992ko krisiak ere gogorrak izan zirela gogoratu du Irastorzak, "baina nik uste jendea gastu gutxiagotan sartua zegoela orduan, krisiari aurre egiteko prestatuago, orain denak hipotekatuta-eta...". Kontuak kontu, hilean 35-40 bidaia izatetik erdia egitera pasa dira Irastorza eta lankideak, eta egun honetan ere, ziurrenik Pasaia egindako ordubeteko jarduna izango da kobratuko duten lanaldi osoa -itzulia ez zaie ordaintzen-, enkargu berririk izango duten esperoan goiza eta arratsaldea emango duten arren. Juan Zabaletak 22 urte daramatza txofer, eta dio iazko urtea emaztearen lanari esker atera zutela aurrera. Kamioia saldu eta erretreta hartzeko aprobetxatu du askok.

Gasolioak gora eginez gero, pikutara doa sektorea

Sekulako "garbiketara" egon zen iaz: dirua aurreztua zuenak biziraun du, eta hainbat

eta hainbat garraiolari lanik gabe geratu da. Kostuak igo egin dira, bidaia ordaintzen zaiena jaitsi, eta fakturazioak %20 egin du behera. Erregaiaren prezioak berriro ere gora egingo balu, sektorearen azkena litzateke. Horra Euskal Herriko garraiolarien sindikatuko (HIRU-ko) bozeramaile Estitxu Ugartek uste duena. 2008an erregaiak goia jo zuenean -ia euro batera iritsi zen gasolioa- mobilizazioak hasi zituzten garraiolariak. Azkenean faktura propioak onartu zituen Espainiako Gobernuak, erregaiaren prezioen gorabeherak bezeroari pasatzen zaion fakturan islatzea alegia, baina enpresek arau horri muzin egiteko bide asko dituztela eta ez dela betetzen dio Ugartek. Krisiaren aitzakian, baldintzak geroz eta kaskarragoak dira, eta geroz eta gehiago estutzen dituzte: esaterako, egunean gehienez 9 ordu gidatu daitezke, atsedendia egin behar dira tartean, eta takografoak hori dena kontrolatzen duenez, takografoak eraman behar ez dituzten furgoneta

tropelarekin moldatzen da enpresa sarritan, kamioia hartu beharrean: "Berez larri ibiltzen dira epeak betetzeko, bada ere gehiago itotzen dituzte furgonetak, kontrolik ezean orduak eta orduak eroen pare gidatzen eman ditzaketelako helmugara garaiz iristeko, hil arte gidatzen", salatu du sindikatuko bozeramaileak.

Dumping-a ere indartsu sartu da sektorean: hemengo fabrikek atzerriko -normalean



"Enpresen deslokalizazioa ez litzateke errentagarria izango garraioak benetan kobratuko balu bere lanak balio duena, baina kamioilari autonomoak dira eta oihanaren legea da nagusi"
ESTITXU UGARTE, HIRU



18 metro luzeko burdin piezak Pasaiaiko portura eraman behar dituzte Iñaki Irastorzak eta Juan Zabaletak, han deskargatzeko. Kamioia dute lantoki eta errespetua eskatzen diote gizarteari, ez ditzaten errepidean enbarazu moduan ikusi, zerbitzu moduan baizik, "gizarteak berak eskatzen duen hori eduki dezan".



Errumaniako edo Portugalgo—garraio-enpresak azpikontratatzan dituzte, oso merke eta baldintza ziztrinetan. Ondorioa? Huskeriaren truke garraiolarik atzerritarrek hilabete batzuetako lanaldirako etortzen dira, bitarte horretan gasolindegiren bateko aparkalekuan modu txarrean biziz. Egoerarekin amaitzeko, Euskal Herrian lan egiteagatik Euskal Herriko soldatak kobratu behar direla aldarrikatzen du HIRUK, datozen lekutik datozela, hemengo-entzat gainera zaila baita prezio horietan lehietzea.

Izan ere, sektorearen %80a baino gehiago autonomoa da Euskal Herrian, eta beraz lehia handiko eremua da: merkeen egiten duenari ematen zaio lana, eta elkartasuna falta da, bere aldetik jotzen du bakoitzak. Krisi garaian, negoziatzeko indar falta hori pairatzen dute hemengoek, European oro har soldatapekoak baitira garraiolariak. Duela bi hamarkada, Euskal Herrian ere garraio-enpresa handiek egitura-tzen zuten sektorea, baina orduko krisi ekonomikoak eraginda, soldatapeko garraiolarik gehienei kamioia eman zieten eta autonomo egiteko eskatu, kostu laboral eta sozialak gaitetik kentzeko. Oraingo krisian ere halakorik ematen ari dela gaineratu du Ugartek.

Hilean 35-40 bidaia izatetik erdira pasa dira, eta gaur ere, ziurrenik Pasaia egindako ordubeteko jarduna izango da kobratuko duten lanaldi osoa, enkargu berrien zain goiza eta arratsaldea eman beharko duten arren

Milioika euro ilaran zain

Goiza aurrera doa Pasaiaiko portuan eta hamaiketako egiteko astia ere izan dute kamioilariek, oraindik deskargatzerik izan ez dutelako haserre. "30 kamioi baldin badaude hemen, eta bakoitzak 20 milioi balio baditu, atera kontuak, milioika euro dituzu geldirik; zein enpresak egiten du 20 milioiko inbertsioa, ondoren inbertsio hori ordubeteko lanean erabili eta egun osoan geldirik edukitzea?", kritikatu du Irastorzak. Kooperatibako bulegora deitu du zegamarrak eta oraingoz eskaera berririk ez dagoela esan diote; gaitzerdi, portuan itxaroten daude, baina bestela ere Olaberrian geldirik egongo lirateke, bidaiaren bat eman zain. "Abentura bat da hau eta eten-gabeko zalantza da okerreana, ezin jakin zer bidaliko diguten ordu batzuk lehenagora arte, zein ordutan bukatuko dugun, bihar enkargurik izango dugun...", kexu da Juan Zabaleta.

Azkenik deskargatu eta 11etan abiatu da Irastorza Olaberriarantz, baina Zabaletak—eta bera ere 7etan iritsi da portura—Pasaian ilaran geratu beharko du beste ordubetez gutxienez. Bueltako bidean, gaizki ikusiak daudela azpimarratu du zegamarrak: "Istri-

pua dagoenean, notizia da kamionak zelako ilarak sortu dituen errepidean, ez kamioilariari zer gertatu zaion”. Berrogei tonek sortzen duten inertzia kontrolatzea ez da beti erraza, gelditzeko, mugimendu azkarrak egiteko, zerbait saihesteko... eta autoan goazenok ez omen dugu ez ulertzen, ez errespetatzen: “Kamiona ez da enbarazu bat, zerbitzu bat baizik, gizarteak berak demandatzen duen hori eduki dezan. Gizarteak eskatu du hau horrela izatea eta gu langileak baino ez gara, gure lantokian”.

Estitxu Ugartek berdin pentsatzen du: milaka merkantzia kontsumitzen ditugulako eta kontsumitu nahi ditugulako daude milaka kamioi errepidean. Guztiok gara eredu horren arduradun, interes asko mugitzen dituen eredu.

Eredu jasangaitza

Europaren garraio politika neoliberalak deslokalizazioa bultzatzen du, merkatu librearen eta eskaintza eta demandaren legearen izenean. HIRUKo bozeramailearen hitzetan, “Eibartik Ukrainiara doa enpresa, lantegia jartzen du han, kostu laboralak aurrezten ditu eta gainera gai da han ekoizturiko produktua hona ekartzeko estrarik ordaindu gabe. Nolatan? Garraioa ia-ia doakoa delako, oso-oso merkea, eta deslokalizazioa ez litzateke errentagarria izango garraioak benetan kobratuko balu bere lanak balio duena, baina autonomoak dira eta oihanaren legea da nagusi”. Milaka tona mugitzen dira munduan, eta fabrikanteak ez dituen hartzen bere gain horiek mugitzearen ondorioak, gizarteak eta garraiolariek berak ordaintzen ditu kostu sozialak, ingurumen kostuak, errepidean bizitza galtzeko arriskua, trafiko kolapsoak, azpiegitura gehiago eraikitze ordainsari eta zergak... “Administrazioak esaten digunean errepideak egin behar direla kamioi pila bat dagoelako errepidean, guk diogu: ‘Bai, kamioi pila dago errepidean, baina zuek nahi duzelako, ez guk’. Garraiolariek ez du erabakitzen zenbat bidaia egin”.

Gizarteak berak horren ardura ere baduela gaineratu du Ugartek: “Supermerkatura joan eta ura dago apalean, baina ez dakit zenbat herrialdetako ura, eta prezio bera daukate inguruan jaso denak eta milaka kilometro eginda ekarritakoak! Ur mota horiek guztiak edukitzeko zenbat kamioi behar dira



Kamioiak deskargatzeko makina bakarra jarri dute portuan eta luze doa itxaronaldia. “30 kamioi baldin badaude hemen, eta bakoitzak 20 milioi balio baditu, atera kontuak, milioika euro dituzu geldirik”, kexu da Irastorza.

errepidean? Kontsumo basati hori hedatua dago eta gure administrazioek bultzatu egiten dute, garraio ahalik eta merkeena sustatuz”. Politikariei eredu aldatzeko ahalegina eskatu dietenean, baietz erantzun dietela dio HIRUKo kideak, “baina bitartean” hitzek hartzen dutela gain: bitartean AHTa, super-portua, ordainsariak... “munstroa etengabe elikatuz. Inoiz ez zaio ereduari buelta ematen, baietz esaten diguten arren ezetz pentsatzen ari baitira; beste interes batzuei erantzuten diete”.

Kontraesana dirudien arren, geroz eta garraio gehiago ez baita mesedegarriagoa kamioilariarentzat. Krisi garaiko

salbuespenarekin, geroz eta merkantzia gehiago mugitzen da, baina geroz eta merkeago eta baldintza eskasagoetan. Sindikatuek alternatiba aldarrikatzen du: bidaia gutxiago baina motzean, inguruan, hobeto ordainduta eta seguruago.

Momentuz ordea, “baina bitartean” politika da nagusi, eta ordainsaria jarri nahi dute orain Etxegaraten. Kostu hori norbaitek ordaindu behar izatekotan, fabrikanteak ordaindu behar lukeela dio Estitxu Ugartek, hura baita merkantzia leku batetik bestera mugiarazten duena, baina produkzio-katearen zatirik ahulenak ordaintzen du. Bestela ere garraiolariek zerga asko dituztela gogoratu du Ugartek (ikus koadroa), eta kontsumitutako gasolio litroko, erdia baino gehiago zergetan joaten dela. Eurobinetak helburu bera du: garraiolariei tasa bat kobratzea, errepideak eta azpiegiturak hobetzeko, eta Europar Batasunak dio 2012rako egon behar duela martxan. Hipokresia iruditzen zaio sindikalistari, Hego Euskal Herrian behintzat atsedeen gune publikoen egoera tamalgarria delako: “Zuhaitz batzuk, lau paper-ontzi eta banku bi, inork zaintzen ez dituenak, komunik, tabernarik edo lo egiteko lekuri gabe. Lo egiteko lekuak topatzeko gasolindegia pribatueta jo behar da”. Berdin errepideekin: “Tortura bat da Etxegarate garraiolarientzat!”. Segurtasunaz arduratzen den EuroRAP erakundeak kalera-tutako azken txostenaren arabera, 2006an bideetan antzeman zituzten gune arriskutsuen %70ek konpondu gabe jarraitzen dute. Gipuzkoako errepideetan adibidez, kamioi andana elkartzen da, batetik Europatik datozenen inbutu delako, eta bestetik industria eta txatarra asko mugitzen delako. Garai batean

Datutan

- Hego Euskal Herrian, 17.000 garraiolari autonomok egiten dute lan (sektorearen %80a baino gehiago) eta garraio enpresen %90ak 1-5 langile ditu. 2009an, garraio sektorean %30-40 jaitzi zen **lan-karga** (siderurgia eta automobilgintza sektoreetan, %85), 2008ko datuekin alderatuta. Garraiolarien ordainketa %6 jaitzi zen eta fakturazioa %20. Kredituen finantzazioak ere behera egin zuen, %40 –kredituak lortzeko arazo handiak izan dituzte kamioilariak bankuetan–. Europar Batasunean, zama garraioaren lan-karga %50 jaitzi zen iaz.

- Espainiako Gobernuaren datuen arabera, zamadun ibilgailu baten **gastu zuzenak** 0,95 eurokoak dira kilometroko hutsik doanean, eta 1,1 eurokoak zamarekin. Gastu handienak honakoak dira, hurrenez hurren: erregaia (gastu zuzenen %31,9), txoferra (%24,9) eta dietak (%12,3).

- 2007ko datuen arabera, ibilgailu bakarreko garraio-enpresak urtean 23.000 euroko **zergak** ordaintzen ditu eta erregaia-egatik, urtean 50.000 litro kontsumitzen dituen ibilgailuak 16.500 euro ekarriko lizkioke

administrazioari (BEZa kontuan hartu gabe). Hego Euskal Herriko garraiolariek 2.000 milioi euroko aberastasuna sortu zuten iaz, Barne Produktu Gordinari egin zioten ekarpena aintzat hartuta. Europar Batasunean berriz, 2005ean garraio zerbitzuan jarduten zuten 1,1 milioi enpresek 8,7 milioi pertsonari eman zioten lana eta 380,1 bilioi euroko balio erantsia sortu zuten.

- Eurostat-en 2005eko datuen arabera, Europar Batasunean isuri zen **CO₂**aren %24 garraioaren sektoreak isuri zuen (industriak baino gehiago). Kontuan hartzekoa da zifra hori %17koa zela 1990ean.



bizitza salbatzeko ere komeriak izaten zituztela esan digu Zabaletak, denak presaka eta entrega orduak estututa.

Lapurtutako bi kamioi

Olaberriara iritsita, bidaiaren bat atera zain geratu da Iñaki Irastorza; aldizkariak irakurtzeko, kamioian duen ordenagailu eramangarrian lanen batzuk egiteko edo kideekin solasean aritzeko aprobetxatuko ditu ordu hilak. Ez dirudi enkargurik jasoko duenik arratsaldean; ziurrena, kamioia kargatuta utziko du, hurrengo egunean, goizeko 6etan berriro ere, deskargatzera abiatzeko. Komentatu du aste-bete lehenago bi kamioi ostu dituztela Olaberrian, burua bakarrik, askotan zama baino baliotsuagoa baita kamioia bera. Lapurreta kasu ugari entzuten badira ere, beldurrik ez duela dio berak. Kamioiaren kabinan ohea du, eta noizbait egokitu zaio hor lo egitea.

“Supermerkatuko apalean dagoen ur mota andana ekartzeko zenbat kamioi behar dira errepidean? Kontsumo basati hori hedatua dago eta administrazioek bultzatu egiten dute, ahalik eta garraio merkeena sustatuz”

ESTITXU UGARTE, HIRU

Kamioilari gehiago dauden guneren bat aurkitzea da gakoa, eta bata bestearen ondoan jartzea. Batzuek pega-pega eginda jartzen dituzte kamioiak, lapurrek ezin dezaten atea ireki, edo barrutik kateekin lotzen dituzte ateak, baina arriskutsua da hori.

Ordu batzuk lehenago Pasaiako portuan langileetako batek kontatua ekarri dut solasaldia: “6 urteko semeak esan zidan lehen-goan kamioia gustuko duela oso, baina ez duela nire lana egin nahi, esnatu aurretik alde egiten dudalako lanera eta oheratzear dela itzultzen naizelako”. Gazterik apenas dago sektorean, eta belaunaldi berriek ez dute kamioilari bidea hartzen. Garraioa gaizki ikusia dagoela dio zegamarrak, makina bat ordu sartu behar direla, horietako asko ordaindu gabe geratzen direnak, “eta krisiarekin gainera, nork du orain kamiona erosteko aukera?”. Bankuek ez dituzte kredituak erraz ematen.

Krisia pasako dela dio Irastorzak, baina gertatzen denerako kezka bi ditu HIRUko bozeramaileak: “autonomoegi” diren garraiolariak gai izango al dira lan gehiago dagoenean prezioak ere berriz igotzeko? Eta munduan merkantzia tona ikaragarriak mugitzen jarraituz gero, politika jasangaitez honek noiz egingo du eztanda? ■

argia.com Iñaki Irastorzaren eta lankide kamioilarien itzala izan gara egun batez. Gure webgunean duzu horren diaporama.

«Bere artearen sortzeko kapable den gizadiak etorkizun ona esperatzen ahal du»

Baratze bat nahi deizüt egin / amets sekretüenekilan, / liliak egün jauntsi ederrenetan / mila kolorez dantzari bihotzetan... Pier Paul Berzaitz da, gauza anitzen artean kantu xume bat egin zuena pastoral batendako, jakin gabeen obra ttipi hark lehenago egin lan guziek baino izen handiagoa emanen ziola.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Pauen bizi zara. Zuberoako emigrazioaren historian zara zu ere.

Lehenago, ene amatxiren bi anaia baziren Ameriketara. Ondotik, aitaren beste bi anaia ere bai, San Frantzisko iparraldean, Chico ondoan. Artzain joanak. Ni Paue eta Muskildia artean bizi naiz —erdia han, erdia hemen—. Zuberotarrek Paue dugu gure lehen atea. Erran nahi baita, Euskal Herriko lehen emigrazioa honat etorri zela. Hemen, ostatu eta enpresetan, baziren zuberotar andana: Eskiula, Barkoxe, Atharratze, Montoritik etorriak... Kasik hango familia guzietarik bat edo bi hemen dira oraindik, lanean. Bada eskualdun elkarte bat ere, Lagunt eta Maita izena duena. Berrogei urte baditu. Pertsonaia enblematiko bat izana da hemen —oraindik bizi da, Etxebarne deitzen da—, Idauze-Mendikoa. Lan ona bazuen hemen, kooperatiba baten zuzendari, eta langile asko ekarrarazi du Zuberoatik. Gauza asko eginak ditu hemen: trinketa, pilotan aritzeko, frontoia ere Paue ondoan... Luzaz izan da eskualdunen arima hemen.

Zuberotarrak dira Paueko euskaldunak.

Baina ez bakarrik. Bizkaitarrak ere ezagutzen ditut, aizkoran, zur lanean etorriak. Aragoitik ere etorri da hainbat jende.

Eta euskaldun horien artean nola heldu da Pauera Pier Paul Berzaitz?

Lehenik, egona naiz hemen eskolan. Maulen egin ditut lehen mailako ikasketak. Ordea, han bukatzen zen, eta xantza ukan dut hemen estudioen segitzeko. Orduko gazteak, eskolara joaten zirenak, hemen zeuden: edo Bordelen Zuzenbidearen ikasteko, edo Ekonomia, Soziologia eta Humanitate Zientziak, Pauen.

Pauen hasi zinen kantari?

Ez, ez! Euskal Herrian hala ere! Eskualdunak gutxi ginen unibertsitatean une hartan... Adibidez, hazpandar bat, txistua jotzen zuena. Nik gitarra jotzen nuen, eta egia da hemen ere ari nintzela abesten. Oroitzen naiz greba bortitza bat izan zela Lacq-eko gas fabrika handian. Hara joan nintzen, abesten, eta gero bertan jarraiki Guk-ekin Euskal Herrian zehar.

Izana zen ordurako Ez Dok Amairuren jaialdia Zuberoan? Badakit erran nahi berezia ukan zuela zure bizian...

Nortasun agiria

Pier Paul Berzaitz (Muskildi, 1951). Ekonomia ikasia, kazetari izan da Parisen, eta irakasle eta banketxe langile Pauen. Guk taldean kantatu zuen 70eko hamarkadan. Kantari ezaguna eta aski aipatua da. Izkiriartzen ere abila, bost pastoral ditu emanak (*Harizpe, Atharratze Jauregian, Madalena Jauregiberri, Ramuntxo, Bereterretx*), eta ikuskizun lanak ere bai: *Oihenart bizi urrats, Elkanoren Semeak, Euskal Spiritu, Zamaltzain, Orreaga, Ze Bolada*, besteak beste. Lau disko ere agertu ditu. Paue eta Muskildi artean bizi dugu.



• PERSONAIA •
Pier Paul Berzaitz



Bai, Urdiñarben izana zen, 1969an uste dut. Hura izan zen nire abiatzea. Han ziren [Joxe Anjel] Irigarai, [Mikel] Laboa eta beste bi zuberotar; ez naiz oroitzen nor ziren ere. Zerbait piztu zen nire bihotzean. Garai hartan bage-nuen hainbat frustrazio eskualdunek, eta ikus-tez egun batean bi gazte haiek, Laboa eta Iriga-rai, abesten —nehoiz entzun ez nuen eskuaran, bestalde, horrelako berotasun eta autentikota-sunarekin—, errebelazio handi bat izan zen enetako. Egun ere ikusten ditut oraino biak kantatzen! Geroztik, hainbestetan pentsatu dut kantaldi haren inportantzia. Pentsatu nuen bazela hor altxor bat, gauza inportante bat, ez gure apaltzeko bide bat baina bai ‘argitzeko’. Geroztik, ahalik eta hobekienik, izar hura entseatu naiz defenditzerat, edozein tokitan.

Erran duzu eskualdunek bazutela zenbait frus-trazio garai hartan.

Mauleko eskolan, adibidez, baziren Mauleko “burgesak”, alde batetik, eta gu bestetik, erran nahi baita, baserritarrak eta hiritarrak. Pixka bat pairatu dugu egoera. Pentsu nuen eskuaraz mintzatzea gauza naturala zela, baina garai hartan, Maulen hasteko, zokora-tuak izanak gara eskualdunak ginelakoz... Esan dezaket gauzak aldatu direla gaur, Mauleko burgesia ikusi dugularik pastora-le-rat jiten edo euskara kurtsoak hartzen. Hale-re haur denborako pairamenak ez baitira aisa ahazten, oinarri horren gainean izan ditut geroztik sentimendu asko.

Nola zen giroa Pauen?

Libertate gehiago bazen eta halako ezber-dintasun bat, eskuaraz kantatzen bainuen.

Beti oroitzen naiz, lehen diskoa: Xabier Leteren *Lore gorrien balada*. Pauera etorri zen, ez dakit nola, eta emozio handiarekin oroit dut hura. Maitasuna ematen nien Zuberoako kantuei, gitarra soil batekin.

Gitarra baino lehen, pianoa ikasi zenuen.

Bai, eskolan, pixka bat. Momentu hartan gitarra obligazioa zen gu bezalako hippyen-tzat. Komodoa ere bazen, ezarri autoan eta aurrera! Eta gitarra falta bazen ere, segitzen genuen. Harekin ibili naiz Larzakeko alder-dietan eta Italian ere berdin.

Oraindaino atxiki duzu hippy airea.

Libertate hura agian! Orain norma gehi-go-ren artean bizi gara. Nahiz beti pentsatzen dugun leheneko garaia hobea zela, baratze galdua dugu hori... Ohiko perpausak ditugu horiek zuberotar kantari batzuekin. Beti ber historiak kontatzen ditugu, baina ber plaze-rarekin. Maitasunarengatik, funtsean esaten dugunak inportantzia guti du. Denok badu-gu guti edo aski leheneko denborako nostal-gia hori. Xipri Arbelbidek idatzi duen beza-la, Arestiren poema horretaz, baina egia esan ez ditu gauzak horrela ikusten. Pentsa-tzen dut atzokoa amaitua dela eta behar dugula biharkoa hobeki pentsatu. Xantza dugularik, osasun pixka bat eta gauzak egi-teko okasioa eta nahikundeia, atzokoa ez da ahantzi behar baina biharkoak du indarra hartzen.

Zertan duzu, egun, Ez Dok Amairuk Urdiñar-ben egin zuen kantaldi hartan izan zenuen errebelazioa?

Gabia lükezu beltza

“Roger Idiart apaiza, orain pausatu berri dena, emazte xahar batekin mintzatzen zen, omen, pastoralaz, eta gertatzen zen urtean bazela bi pastoral. Roger Idiartek hori zuen buruan eta emazte xahar hark erantzuna eman zion: ‘Gabia lükezu beltza!’. Batere ez izatea litzateke txarra”.

Momentu hartan, eskuara etxeko gauza zen. Ez genuen besterik mintzatzen. Eskola publikoan hasi zen erdara, pazifikoki, hala ere. Gure errejenta ez zen eskualduna baina errespetatzen zuen gure mintzaira. Oraingo kontrarioa gertatzen zen: pauso edo erre-kreazionetan eskuaraz mintzatzen ginen gure artean, eta eskola barruan erdaraz. Orain, aldiz, ikastolan ere, alderantziz da. Barruan eskuaraz mintzatzeko obligazioa badute, beharrik, baina atera eta erdaraz! Momentu hartan, ene mundua herri auzoan “Urdiñarben” amaitzen zen. Frantziakoa eta gure mintzatzeko manierak diferenteak zirela pentsatzen nuen, baina haur baten begietan ez zen besterik. Eskuara etxeko gauza zen, kantatzen genuen mezan baina uste nuen eskuara gure mundu ttipi horretako afera baizik ez zela. Mauleko eskolan nintzelarik, eskualdun gauzarik ez zen gehiago batere.

Noizkoa duzu *Yesterday* zure bihotzean?

1967-68an eginga izan da abesti hori. Uste dut *Yesterday* izan zela, lehenetarik bat, non Beatlesekin ezarri zuten poesia gehiago eta melodia ezinago ederra. Frogatu zuten musikaren unibertsaltasuna. Ez dakit xuxen zergatik hunkitu nauen gehiago kantore horrek. Beti pentsatu nuen horrelako kantore baten egitea zela bizi baten xedea.

Egina duzu, nolazpait. Horra *Baratze bat*...

Ez! Agian egunen batean eginen dut...

Bizian behin egiten da hori.

Egia, bai, bizian behin egiten dugu, eta bate-re jakin gabe! *Baratze bat* pastoral abesti bat izan zen. Beste mundu bat enetzat, pastora-la. Herri batean egiten delarik, pastoralak emozio handia ekartzen du. Ikustez, adibidez, zure auzoa, nola den egun oroz bere bizian, pentze edo alorrean lanean, eta ikus-tea zer egiten ahal duen tauladan!

Pastoral afera hori ere egiazko altxorra dugu Zuberoan. *Harizpe* tragedian, entseatu nintzen

Muga ezabatu

“Muga hor izan da hainbeste denbora, eta min handia egin du horrek. Burdinazko hesia izan da, fisikoa, materiala, egiazkoa. Marka latza. Orain, Hendaian ezarri dute halako pausoa. Pasatu dute lau edo bost urte lehengo muga hura garbitzen: horrek esan nahi du ez dutela gogo onez egin lan hori. Baina, kasu, egin dute poliziaren tokia ere Euskal Herrian, bai Espainiako aldean, bai Frantziako aldean. Badut aments bat kantu baten egiteko muga horren inguruan, materialki bota zutela esateko, baina aztarnak badirela oraindik. Menturaz, behar dira generazio bat baino gehiago mugaren ezabatzeke”.

pertsonaia militar baten historia egiten. Hura militarra, ni nahikoa antimilitarista, haren garaia interesatzen zitzaidan, nola den gizonaren suertea, nola sortu zen hura bezalako pertsona bat Baigorri eta haren bizi estonagarria.

Kantu harekin identifikatzen dute zure izena...

Izena polita du, *Yesterday*-k bezala. Etxeko baratzea, baratze galdua... Metafora anitz permititzen du baratze batek. Uharte batek ere bai, baina ez dugu horrelako askorik gure kulturean. Baratzeak baditugu gure herrietan. Ez dut nehoiz pentsatu kantore horren arrakastan. Nihaur ere maiz estonatu naiz. Kantaldi batean ez badut ematen, jendea ez da kontent! Baditut testigu anitz. Frankotan pertsona bat heldu zait esatera: “Ene alabaren ezteietan kantatu dute *Baratze bat*, eta emozio handia banuen”. Pozik naiz horrelako indarra hartu badu kantu xume horrek.

Zinez bestelakoa zen harako hura: *Lagun, etor gurekin, / denek elgarrekin, / badugu zer egin, / gu ez gira lotsatzen, / etsaia nun hazten, / han da gudukatzen, / gure odolez ta ontasunez, / gure izaitez dirade gosez, / elkartasunez, erakuts hortzak, / elgarri josiz buru-gorputzak!*... Guk taldeak famarazi zuen kantua. Non da Beñat Sarasolarekin hasi zenuen bidea? Herria, laboraria, askatasuna...

Hor bota ditugu gure frustrazioak, partez bederen. Hori militantearen bidea zen. Ez dakit hainbeste ilusio izan dudanez, baina bizitu ditugu momentu bereziak. Ene Euskal Herriko bista zen lehenik Maule, eta ez nuen pentsatzen Donibane Garazi bazela ere! Ez nuen sekula pentsatuko Euskal Herri bat bazela mugatik bestaldera. Baina bestaldean ere bada hori! Jende anitzek ez du Iparraldea ezagutzen. Pentsatzen nuen gehiago kutsatzen zela, baina jende guti etortzen da bestal-detik honat. Gaur ere jendeak aste guzietan ibiltzen dira leku anitzetan, baina hala ere...

Beñat Sarasolarekin egin bideaz zer diozu?



AZKEN HITZA

Gizon-orkestra

«Orokorki Berzaitz artista handia da, gizon-orkestra: denetarik egiten dü, eta ontsa egiten. Gisa horrez Etxahun Irurikoaren ondokoa dügü ene ustez: itxü-raz eta maneraz ez, segürki, denborak ere zinez kan-biatü beitira, bena bai Xiberoan eta beste probin-tzietan betatzen düan leküaz, eta lehenik gizon-orkestra izateaz».

“Jean Louis Davantek idatzia da hori, badakit... Duela urte zenbait idatzi zuen. Ez dakit orain berriz hori idatziko zuen! Espero dut baietz, eta eskertzen dut so zorrotza duelakoz. Etxahun Iruri anitz maite dugu zuberotarrek. Haren lana estonagarria da. Laboraria zen, eta uste dut maitasunak gidatu duela Etxahunen obra miresgarria. Orain agian gauzak gehiago ikertzen ditugu, eskolan gehiago izan gare-lakoz, nahiz ez den eskolan ikasten bizia... Pertso-nalki, Etxahun ez bezala, urbanizatua naiz, Parisen bizitu naiz, eta orain Paue eta Muskildi artean”.



Apezgaia zen Beñat, baina Baionako gotzaina-rekin izan zituzten eztabaidak. Han ziren Manex Pagola, Gexan Alfaro eta beste batzuk. Hauek nahi zuten mezan kantika zenbait eskuaraz ezarri. Ez zen galde handia, gero denak hala izan dira. Bota zituzten seminario-tik! Beñati xantza eman zioten, purgatorio

Profeta Pauen

“Enetzat egokia zait Pauen eta Muskildin bizitzea, ezi nehor ez baita profeta bere herrian. Munduaren erdia mintzo da beste erdiaz. Batzuetan, pastoral baten ondoan, eman dezagun, pasatzen nuen Mitikile (Zuberoako azken herria, Matalazena), hor dago muga, Angouseko naban, erran nahi baita Biarnoa. Pentsatu nuen: ‘To, hemen finitzen duk Zuberoa! Ez dakite zer den ere pastoral!’ Garbitzen nuen ene burua, mundua erlatibizatzeke manera zen”.

baten egitera, enpresa batean bere ideien gar-bitzeko, ikus zezan zer zen mundua. Agian espero zuten joanen zela seminariotik, baina Beñatek beti gogoan bazuen bere bokazioa... Gero bertan Domintxinen elkar ezagutu dugu eta segitu elkarrekin, Guk taldean. Oso garai ona izan da niretzat. Ezagutu dut bestaldeko bizia. Orduan kantaldiak egiten genituen tek-nika gutxirekin, gitarra maiz desafinatua... baina jendea mukur biltzen zen. Orain, badu-gu ezinagoko teknika, baina gelak batzuetan argi. Tendentzia hori da gaur.

Eta Pier Paul Berzaitzen jendea, entzulea?

Badut nire publiko ttikia eta fidela. Haatik, poesiari edo euskal kantagintzari jendea pixka bat gibeldu dela pentsatzen dut. Agian ez diogu ematen espero duena. Hegoaldean ere berdintsu dela esan nezake. Lehen bizitu dugu momentu ona, militantismoari esker, eta poe-sia horrek egin du bere lana. Orain, aldiz, ez dugu nahikoa arraberritzen, edo arraberritzen dena ez da jendeen gustuko. Zerbait pasatzen da. Uste dut telebistak ere ez duela anitz lagun-du gure musika. Badugu Euskal Telebista, eskuaraz, baina gauza bat ederra zena, ez da beti izan gure laguntzaile ziurra.

Ekonomia ikasia, banketxean lan egina, irakasle izana... Pastoralaren bidean zerk jarri zintuen?

Gauza bitxia izan da enetzat. Muskildin kasik mende bat pasatu da pastoral sortu gabe. 1985ean, ene anaia auzapezak esan zidan: “Behar diagu pastoral bat egin. Baduk mende bat ez dela gure herrian egin. Baduk gazte andana ere!”. Gure herria oso ttipia da, 260 jende. Garai hartan asko ibiltzen ginen Guk-ekin eta ez nuen garbi ikusten pastoralaren afera hori, baina, beste alde batetik, ez nion anaiari ezetz esan nahi ere. Pentsatzen nuen agian esperientzia positiboa izaten ahal zela. Orain esaten ahal dut zein gauza sakona den pastoral herri batendako. Batzuek esaten dute: “Nola da posible, ordea, zuberotarrek urtero pastoral bat, batzuetan bi, egitea?”. Esplikazioa sinplea da: maitasuna sortzen da gauza horien inguruan. Ez dago beste proiekturik, ez egitasmorik, jendea hola bil-tzen ahal duena. Denetan bereizten gara eta bereizten gaituzte, haserretzen gara, edo bide edo lur edo nik dakit zer!, baina hor, pastora-lean, denok bat gara. Zazpi hilabeteen ilusioa sortzen da. Alde artistikotik indar handia zuela pastoralak sentitu dut, teatro osoa zela, bai boza, bai kantua, eta zein maitasunarekin egiten duen jendeak... Orain denek kontsu-mitzen dugu artea, esposizioak, kontzertuak, zinema... baina parte hartzen duzularik, beste indar bat hartzen du. Bere artearen sortzeko kapable den gizadiak uste dut etor-kizun ona esperatzen ahal duela. ■



• Hondakin biltzaileak •

Ongi etorri zabor mendira

Zakarra azkenaldiko eztabaidagai nagusi bilakatzeak ondorio garbi bat dakar: baztertu, estali eta ezkutatu dugun errealitatea gainera etorri zaigu, alferrikakoa da ezikusiaarena egitea. Hondakinak tonaka sortzen ditu gizakiak, eta horren lekuko, zabortegi erraldoietako bizimoduaz Joseba Zabalza argazkilariak egindako erakusketa: *Welcome to the garbage mountain*.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Joseba Zabalza

BEREHALAKO eta etengabeko kontsumo goseak eragiten duen zabor pilaz eta gure planeta hondakin biltegi bihurtzeaz hausnartu nahi izan du argazkilari iruindarrak bere azken proiektuan. Zabortegi ikaragarriak aurkitu ditu, Hirugarren Munduko hiri txiki, ertain eta handi guztiek dituztelako zabortegiak, batzuk hiri erdian gainera: “Guatemala hirian, adibidez. Kirats ustela sortzen da eta plagak zabaltzeko arriskua dago. Zabor tonak lur geruzekin estali ohi dituzte halakotan, baina oso arriskutsua da, metano kontzentrazio altuek eztandak sorrarazten dituztelako, lurra eta zaborra mugituz. Manilako zabortegian esaterako, ni izan baino urtebete lehenago 200 pertsona inguru hil ziren zabor luizi batengatik, eta han gero ez zaitu inork bilatuko”.

Gizarteak baztertu eta zabor bilakatu dituen horiekin egon da argazkilaria, hain juxtu zabor artean eta zaborretik bizi den jendearekin. Milioika eta milioika dira, zabortegietako hondakin tona itzelen inguruan sortutako kolonia eta faveletan pilatuak. Oso baldintza gogorrekin egin behar diete aurre, eta zakarrarekin lan egitearen estigma daramate bizkar gainean.

Duela hamar urte, 1999an abiatu zuen Joseba Zabalzak egitasmoa. Guatemalako zabortegian izan zen bi hilabetez, bertan zeramaten bizimoduari buruzko argazki-erreportaje bat osatzen, eta bere buruari galdetu zion nolakoa izango ote zen birziklapena gainontzeko herrialdeetan. Hala, Antananarivo (Madagaskar), Manila (Filipinak), Wewak (Papua Ginea Berria), Buenos



Erakusketako hainbat argazki, 1999tik mundu osoan ateratakoak. Ezker-eskuin: Buenos Aires (Argentina, 2004), Guatemala Hiriko bi irudi (Guatemala, 1999), Manila (Filipinak, 2002), Wewak (Papua Ginea Berria, 2002), Albacete (Espainia, 2009).

Aires (Argentina) eta Albacete (Espainia) hirietako zabortegeak bisitatu zituen ondoren. “Zabor kontzeptua leku guztietan bera da, jendeak baliogabetzat jotzen duena, baina desberdina da zer den zaborra batzuentzat eta besteentzat. Zaborra ez da gauza bera Espainian, Guatemalan edo Madagaskarren; beti maila bat beherago dago Afrika. Tokioko kontainerretan gauza bila ibiltzea izugarria omen da, sekulako aurkikuntzak egin daitezke! Guatemalan MP3ak, telebistak, argazki makinak... egon daitezke zabortegean, baina Afrikan inon ez, ez dagoelako halakoak erosteko dirurik eta egonez gero, ez direlako zabortegeira iristen, hirietako kontainerretatik berreskuratuko lituzkete. Azken finean, Afrikan askoz gehiago birziklatzen da, agerikoak diren arrazoiengatik gehiago berrerabiltzen eta aprobe txatzen dituzte gauzak”, kontatu digu Zabalzak. Antananarivon esaterako, hondakinen artetik botilak hartu eta petrolio-lanparak egiteko erabiltzen zituzten.

Bizimodu kaskarra txikientzat, negozioa handientzat

Gehienetan bezala, zaborretik bizitzeak esanahi desberdina hartzen du batzuen eta beste kasuan. Argazkilari iruindarraren irudietakoek, zaborrean murgiltzen direnek, egoera latza bizi dute, pobreak dira, eta

herrialdea aldatu arren, antzekoak dira bizimoldeak. “Bestelako kontua da erdi mailako bitartekariena, biltzaileen lana erosten dutenak; edota bitartekari handiena, horiek diru asko irabazten dute”. Zaborrak diru asko mugitzen baitu: Guatemalan, hiru milioi biztanleko hirian, hiru familiaren artean banatzen dute kartoi salerosketa guztia. Monopolioak sortzen dira, enpresekin zuzenean

negoziatzen dutenak. Zaborra beti izan da aberastasun iturri, eta gurean ere jakina da zer nolako interes ekonomikoak dauden hondakin kudeaketaren atzean.

Duela egun batzuk itxi zituen ateak Donostian *Welcome to the garbage mountain* (Ongi etorri hondakin mendira) erakusketak. Orain, bilduma Euskal Herriko beste hainbat herritara eramatea

da asmoa. Hitzorduetako bat behintzat lotua du jada Zabalzak, bere herrian: Iruñean argazkiok jarriko ditu ikusgai udazken aldera. Aipatu argazkiez gain, Iruñeko Emaus-eko langileen egunerokoa ere gehituko dio proiektuari, zaborrarekin lan egiten duen jendea baita hori ere. Emaus-ekoena ez da Guatemala edo Manilakoena bezain baldintza ziztrineko lana, baina bai haiena bezain duina. ■

“Zabor kontzeptua leku guztietan bera da, baina desberdina da zer den zaborra batzuentzat eta besteentzat. Zaborra ez da gauza bera Espainian, Guatemalan eta Madagaskarren”

JOSEBA ZABALZA, ARGAZKILARIA

argia.com Erakusketaren diaporama Interneten.
Bestalde, hona Joseba Zabalzaren bloga:
josebazabalza.blogspot.com



Kolektibitate kutsakorra

Ene ttakunkideek obra handiak izan dituzte erreferentzia gai, bai guk ezagutu eta maitatu ditugun ibilgailu, artelan edota ideiak gordetzeko museoak aipatzerakoan, bai transgenerazionaltzat ditugun artistak izendatzerakoan.

Ni, ordea, hurbilean gelditu naiz, aste honetan izandako eztabaida bat abiapuntu. Hobetzeko grina zer ote den aztertzea genuen helburu. Batek, ikuspegi berekoia alde batera utzita, gauzak hobeto egiten joateko nahia eta norbere burua gainditzeko beharra direla esan zuen. Beste batek, oster, ukitu berekoia behar zuela defendatu zuen hobetzeko grinak; kontu kolektiboa barik, pertsonala dela. Hirugarren batek, oster, kolektibo baten barruan gaudenean, hobetzeko grina hori handiagoa edo txikiagoa izan daitekeela zioen, kutsakorra dela, alegia. Eta kutsakorra baldin bada, kolektiboan lantzen den zerbait dela esanez azkendu zuen laugarren batek. Kolektiboa baldin bada, beraz, kolektibo horrek hartzen edo erabiltzen duen izenak, gure hobetzeko grina asetzeko balioko duela aipatu zen eta izen hori, bada, gure hobetzeko grinaren garapenaren parte izango dela.

Bada ez! Ordu arte isilik egondako taldekide batek aipatu zuen, subjektu bakoitza norbanakoa dela; bere bizitzarekin, bere ideiekin eta bere hobetzeko grinarekin. Kolektibitate bateko parte denean, hobetzeko grina hori lagundua edo zapuztua gerta litekeela, baina norbanakoak erabakitzen duela bere hobetzeko grina horri zenbatearainoko bidea egiten utziiko dion eta zein kolektibitatearen barruan garatu nahi duen. Aukera pertsonala dela. Eta erabakimen pertsonala; indibiduala; transferiezina; eta, beraz, pentsatu nuen nik, ez kutsakorra, ez transgenerazionala.

Bizitzen eta egiten ari garen kultura berria indi-



DANI BLANCO

Ana Urkiza

Padrón

Rozas

bidualista da. Subjektibitateak gero eta indar handiagoa duen plaza ezagutzen ari gara. Baina nago, museoetara heltzeko ardura gutxiarekin. Edota ardura gabezia horixe dela, hain zuzen ere, gure ezaugarri argizarizkoa.

Hitz egin genuen baita, kolektibitatearen izenak, hau da, guk sortutako *alienak* gure izanaren parte den neurrian, gure grinaren batura ordezkatzeko ote duen. Eta ez. Eztabaidara hurbildutakoek ez zuten goragoko maila horretan beren ordezkariak aurkitu. Ez zuten ikusi, ezta ere, grina ezberdinen baturak erreferentzia zerbait lortzeko balio zezakeenik ere. Eta niri, ttakunkideen hitzak buruan, errealtatea gordina egin zitzaidan.

Horrekin batera, belaunaldi berriei begiratzeko parada izan dut asteburuan. Etxean bi urtebetetze ospakizun izan ditudalako. Umeak, beren banakokoan, performatiboak iruditu zaizkit. Edozein obratan pertsonaia bereziak izateko adinako izaeradunak. Baina kolektibo bat osatzeko zailtasunekin. Eta gazteak ikusita, nire lagun batez gogoratu naiz, ezinbestean; etorkizuneko gizarteak bere izena ezagut dezala nahi duela esaten duen lagun batez. Lagun honek lan egiten du gerokoek ezagut dezaten. Berritzailea izaten ahalegintzen da. Bere obra hobetze grinaren ondorio biderkatua da. Bere subjektibitateak bizi dugun kolektiboa aberasten du eta kolektibo horretan bizi da. Bere subjektibitateak kolektiboarengandik at, gorago egotera behartzen du baina kolektibo horri atxikita dago.

Nik, performatiboa izanagatik ere, argizarizko museo batean ikusi dut ene laguna eta, belau-naldi berria, begi handiz bere obrari begira, ezagutzen eta ulertzen ez duelarik kolektibo zehatz bateko partaide izan den nire lagunaren mezu subjektibo hedatzaile kutsakorra. ■

Subjektibitateak gero eta indar handiagoa duen plaza ezagutzen ari gara. Baina nago, museoetara heltzeko ardura gutxiarekin. Edota ardura gabezia horixe dela, hain zuzen ere, gure ezaugarri argizarizkoa

Carmen Valois

IRAKASLEA

Telomeroen tamaina

Zahartzea bizitzearen ondorio zuzena dela gauza jakina da. Alabaina, zahartze prozesuaren inguruan, teoria, ikuspuntu eta iritzi ezberdinak daude. Hargatik, gai honi buruzko aipamenak aise topatuko ditugu literaturan, aldizkari zientifikoetan, baita egunkarrietan ere.

Eta arlo zientifikotik hasita, zera irakurri dut berriki: “Telomeroak dira zahartzearen erantzuleak”. Bai, hala ondorioztatu dute behintzat *Nature Genetics* aldizkarian kaleratu berri duten ikerketa-lan batean. Hor agertzen dutenez, “Telomeroen tamaina da gakoa”. Izan ere, telomeroak kromosomen parte dira eta haien tamaina izaten da adin biologikoaren erakusle: zenbat eta motzagoak izan, orduan eta zaharragoa izango da gure organismoa. Hori kontuan izanik, bi zahartze mota daudela diote: bat biologikoa, kronologikoa bestea.

Bestetik, Luis Rojas Marcosek, New Yorkeko Unibertsitateko psikiatria irakasleak zera dio: “Zahartzea gizakiok dugun iraksgai zailenatarikoa da, zahartzearen ondorioei beldurra diegulako”. Eta gaineratu du: “Gure gizarteak zahartzea ukatu nahi du. Horregatik saiatzeko gara gazteago ematen”. Haren aburuz, bizitzari baikor begiratzea lagungarri izan daiteke,



DANI BLANCO



Bizitzari aurre egiteko jarreran
dago koska. Eta beharbada,
baikor izaten lortuko dugu
telomeroen tamaina luzatzea



hala nola, hobeto bizitzen jakiteko, eta ondorioz, zahartzen ikasteko.

Geurera iritsita, hona hemen Karmele Jaio idazleak egunkari batean argitaratutako hitzok: “Bizitzan zehar gure gain hartutako ardurek zahartzen gaituzte. Haztea eta ardura gehiago izatea elkarrekin doaz ia beti. Eta buruan hazten zaizkigun ile zuri asko ez dira gure adinaren ondorioa, ardura eta kezkek lapurtu dizkiguten ordu guztiena baizik”.

Eta pentsatzen hasita, badugu zahartzearen teoria osatzeko adina elementu. Hain zuzen ere, badugu oinarri teoriko-zientifikoa: telomeroen tamaina. Badugu esperientziaren ahotsa: zahartzen ikasi beharra. Eta badugu senaren taupada: ardurek zahartu egiten gaituzte. Orain hipotesiak falta zaizkigu eta hona hemen otu zaizkidan bi: “Bizitzeko erak baldintzatzen du gure zahartzeko modua” eta “ardurek telomeroen tamainan zerikusia dute”.

Hala ere, badakit teoria honek ez duela gaitutako kontrol zientifikoroz bat; badakit ere, norbaitek esan dezakeela sinplegia dela. Baina niri, une batez, hausnartzeko betarik eman dit. Pentsatzeko, batik bat, bizitzari aurre egiteko jarreran dagoela koska. Eta beharbada, baikor izaten lortuko dugula telomeroen tamaina luzatzea. Ez al zaizu iruditzen, irakurle? ■

HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Batera jo beharrekoak ditugunak hemengo aldeko datorren borzotan.

AHT eraikitzeak sor lezakeen lur antolaketa berriaren desoreka ekologikoaren ekiditea batetik, eta hiru probintzia hauetako egitura propioa sortzearen aldekoa bestetik. Bata bestearen ondorioa dugu. Botererik gabeko eskualdeetan, Eliseoak zernahi egin dezake biztanlegoaren gainetik, inori eta ezeri kasurik egin gabe. Zentralismo erradikalenaren eredu den Frantziak erabakimen osoa du gure ingurua antolatzeke garaian, guretzat ordain eta isil lege autoritarioa onartzea baino tokatzen ez zaigularik. 14an hor-

Bi erronka

tzak erakutsi behar dizkiegu eta 21an hozka egin *Batera*, Iparralde honetarako gure instituzioa galdetuz. Lan eskergea eginga da joan urteetan oraingo egokiera baliatzeko, alderdi, sindikatu eta bestelako elkarteek helburu berak katean mailakatuz eta era askotako eragozpenak gaitutuz. Orain lehen uzta biltzeko garaia dugu bestelako parioei ekiteko partidaz partida gure indarrak erakutsiz. Gipuzkoako Usurbilek erakutsi digu bidea, botere lokalaren indarraren zilegitasuna, demokraziaren izenean nekez ukatu dezaketena. Atez ate nahiago ordezkari ordezkari baino, norberarenak bes-teen esku utzi gabe. ■

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Historia tematia da

Berriki ikusitako *A mejor vida* antzezlanaren eta *Invictus* filma darabiltzat buruan. Batean Morgan Freeman-ek Mandelaren papera egiten du, apartheidaren amaitu osteko Hegoafrika; bestean Concha Velascok gaztetxo musulman bat hezi eta hazi duen atso judutar batena. Biek ala biek hitz egiten digute elkarrekin bizitzera kondenatuta dauden kultura edota herri diferenteei buruz. Lehenengoan maila domestikoan, bigarrenan ikuspegi politikoagoz, bietan aldarrikatzen da elkarrenganako errespetua. Hegoafrika, Palestina, Irlanda... Badakit, jakin, kasu diferentek direla, baina funtsean gauza asko dute komunean eta konbentziturak nago guztietatik ikasi daitekeela guztietarako.

Asteotako gaia ezker abertzalearen *Zutik Euskal Herria* dokumentua izan da. Esperotzekoa zen bezala, batzuek oso aurrerapauso garrantzitsutzat jo dute eta beste batzuek betiko kontutzat hartu. Nabardurak nabardura, neuk ere pentsatzen dut funts-funtsean ezer berririk ez dagoela. Bestelako zentzuan, ordea. Bide politikoetatik baino ez, botizkeriazko inolako injerentzirik gabe... Hori berori askotan entzun diogu ezker abertzaleari. Egia da. Egia den bezala hamarkadatan horixe egiten saiatu dela: politika, hain



IÑIGO AZKONA

zuzen. Egiten utzi ez diotena, gehienetan, ETA aitzakia. Ezin ukatu, halere, ñabaduren inportantzia: milaka lagunek eginiko hausnarketaren emaitza da deklarazioa, Mitchell Printzipioak aipatzen ditu...

Pelikulako Mandelak barkamenaren apologia egiten du. Gehiegitxo iruditzen zait niri horrenbeste sufritu duen jendeari barkatzeko eskatzea. Barrabaskeriak eta sufrimentua bi aldeotan egin direla onartzea, aldiz, gutxien-gutxieneko abiapuntu posiblea iruditzen zait, etorkizuna elkarrekin eraikitze konpromisoa lortu nahi bada, beti ere elkarrenganako errespetuan oinarriturik. Aipaturiko Mitchell printzipio horien arabera, besteak beste, alde guztiek lan egin beharko lukete hilketak, zigorrak eta abarrak berriro gerta ez daitezen. Badirudi ezker abertzalea horretan diharduela; besteak, aldiz, ez dakit. Izan ere, azken hilabeteotan PSOE eta PPko ordezkariak erabili dituzten oldarkeria eta hizkera belizista ez datoz bat filosofia horrekin.

Mandelak eta Arafat-ek erresistentzia armatuan parte hartu zuten. Nik dakidala, ez zuten inoiz biolentzia kondenatu. Terrorista deitu zieten. Urte batzuk geroago Bakearen Nobel Saria eman eta, azkenean, beraien herriek presidente aukeratu zituzten.

Mandelak eta Arafat-ek erresistentzia

armatuan parte hartu zuten. Nik

dakidala, ez zuten inoiz biolentzia

kondenatu. Terrorista deitu zieten.

Urte batzuk geroago Bakearen Nobel

Saria eman eta, azkenean, beraien

herriek presidente aukeratu zituzten

TXANDAN

Joxerra Garzia

Aldarte



Garai ilunpetsuetan bizi naiz, gero! Hitz xaloa txepel da gaur. Bekoki leuna, aldiz, sentiberatasunik ezaren seinale. Barregileak ezagun du ez duela albiste izugarria oraindik jaso.

Zer da, ordea, gure garai hau, non zuhaitzei buruzko solasa delitu den ia, hamaika doilorkeria isil-estaltzen baitu?

Egia da, bai: oraindik moldatzen naiz bizibidea ateratzeko. Baina sinetsidazue: txiripa hutsa da hori. Egiten dudana ezerk ez dit ase arte jateko eskubiderik ematen.

Eta, halere, jan eta edan egiten dut.

Jakintsu izan nahi nuke. Antzinako liburuetan azaltzen da zer den jakintsu izatea: munduko liskarretatik aldendu eta bizi aldi labur hau beldurrik gabe igarotzea. Horrez gain, indarkeriarik gabe moldatzen jakitea, kaltearen truke mesede egitea.

Hori omen da jakintsu izatea. Niri ezinezkoa zait hori guztia. Garai ilunpetsuan bizi naiz, zinez.

Bertold Brechtenak dira orain arteko hitzak, *Jaioko diren berriei* haren poematik nik nola edo hala itzul-moldatuak.

Lapurreta lotsagarria iritziko dio akaso norbaitek zutabetxo bat hala osatzeari, baina nekez aurkituko nuen nire aldarte azaltzeko hitz neureagorik. ■

ZIRTA
Angel Erro

IDA ZLEA

Subordinazioaren alde

Orain egun gutxi batzuk, Alde Zaharreko taberna ketu batean arin afaldu bitartean, gutariko batek, mahaikideon jarrera aldekoa sumatu zuenean, ogitar-tekoekin batera edandako ardo beltz eta sagardoaz bezainbeste hitzez horditzen hasiak ginenean (arte zaila baita, guztion esku ez dagoena, mintzagai berri bat, egoki, bere tenorean ateratzen jakitea), hizpidera ekarri zuen idazle ustez gazte batek erdaraz-ko egunkari batean, euskaraz, idatzitako iri-tzi-artikulua, zeinean, bere burua (eta bere kasua) Kundera(rena)rekin edo Muraka-mi(rena)rekin konparatuta, kexa-tzen omen baitzen beste euskal idazleek ematen dioten harrera hotzaz edo horrelako zerbaitez, ez nago-eta edukiaz seguru, zeren eta, gutariko batek, gaian interesa erakutsi genuenez gero, besteoi artikulua ozenki irakurtzen zигun bitartean, nik –dela normalean saihesten dudana maionesak gaitz egin zidalako, dela egunotan Marcel Prousten *Denbora galduren bila* irakurtzen hasi naizelako eta bera-ren esaldi luzeetako prosodia kulunkari eta mikroskopikoak, las-ter Joxe Austin Arrietaren itzulpe-nari esker gure hizkuntzan ere gozatu ahal

izango dugunak, lilura-tuta naukalako– esan-dakoei kasu eman ordez, estiloari errepara-tu bainion, esaldi sin-ple edo bakunez osaturi-ko jardun sinkopatu horri; eta beste ezertan hausnartzeko ezgai, ingu-runeaz guztiz ahazturik (usoaren modura, zeinak ez baitu, beste hegaztiek bezala, edatean burua gora altxatzen, bai-zik eta edan gogo duena, ahuspez, hatsik hartu gabe, kolpe




JOSU SANTESTEBAN

Nire adimenak atzera egin zuen eta
harriturik argi ikusi ahal izan nuen
gaurko euskal literaturak pairatzen
duen gaitzetako bat, ez bakarra
baina bai dirudien baino garrantzia
handiagokoa, horixe dela, euskal
idazle ustez zein urtez gazteok
hartu dugun esaldi sinplearen
aldeko hautu itsua

batez edaten duen, bere bakarkako asebetet-ze horrek dakarkion plazeraz besterik ez duelarik konturik egiten), etxeko saloian pentsamenduaren sokari segika artikulua bat prestatzen banengo bezain kontzentratu-rik, nire adimenak atzera egin zuen eta harritu-rik argi ikusi ahal izan nuen gaurko euskal literaturak pairatzen duen gaitzetako bat, ez bakarra baina bai dirudien baino garrantzia handiagokoa, horixe dela, euskal idazle ustez zein urtez gazteok hartu dugun esaldi

sinplearen aldeko hautu itsua, zeinaren arrazoiak bilatu nahi izate-kotan –euskararen ezgaitasuna, altura honetara, behin bazter utziz gero–, euskal literatura jakin batek, nagusitu den ereduak, hain zuzen, haur eta gazte literaturarantz egin duen eta beste kontuetan ere sumatzen diodan tendentzia bilatu beharko baikenuke edo, bestela, gure irakurleriaren profil soziolin-guistikoa aintzat hartuta, ikastetxe eta euskaltegietatik ateratzen diren euskaldun berrien hordek eska-tzen diguten euskara erraza dela-koaren eraginean (nahiz eta, azken honi dagokionez, ni ere euskaltegi batetik pasatakoa naizen aldetik esan dezakedan ez dudala euskara erraz horren aldarrikapenean gehiegi sinesten, maila sintaktiko-

an bederen, euskaldun berrientzat ez dagoe-lako zailtasun poxi bat zerratzen duen esaldi luze bat deskodetzeak baino poz eta ondo-rioz motibazio gehiago ematen duen espe-rientziarik), edo, azkenik, arrazoibide arrunt, ikuspegi estuegiko hauek alde bate-ra, pentsatu beharko genuke ezen aldaketa estrukturalagoa gertatu eta irakurtzeko modu bera bestelakotu dela, *in this age of self*, halako gisan non irakurlearen askatasunaren eremua, edo berarekiko beldurra, hainbeste zabaldu den ezen menderakuntza oro, esal-dien edo kontzeptuen arteko erlazioa nor-berak ezartzeko aukera gutxitzen duen hei-nean, zapalketatzat jotzen baita, zientziaren arbolan kiribilka Adan tentatu zuen dea-bruzko suge luze erretoriko hura balitz bezalako kondenaazioaz. ■



irudia:

Antton Olariaga

Jubilazio adina atzeratzeari jarriak

I

Zazpi-sei dugu kasualitatez
Txirrita hil zen edadea,
Zortziko txiki baten puntua
edo herrenka pareta.
Maiz logikari buelta ematea
da bertsoaren klabea
gehiagok ere logika iraultzen
a ze abilidadea!
Sei-zazpi jarri digutenean
sortu zaigun nahigabea!



DANI BLANCO

IV

Piramidea irauli denez
urteak pasatu ahala,
eta gailurrak estua behar
soilik beheza zabala.
Zabalduta dena luzatu eta
dena konpontzen da hala
bestela dena dator behera,
dorre bikien itzala...
Erretiroa dagokiona
goian balego bezala.

II

Izerdi arteko hartu-emana
ulertzen du arrazoiak.
Gaur/atzokoak bihar/gaurkoak
lan ta atsedeen sasoiak.
Baina ez dauzka zertan garbitu
Tertziopelozko siloiak.
Ez geure omen ditugun kutxen
balantzeta milioiak.
Ez zulo txuri-urdirak atzo,
ez gaur urrezko lehoiak.

V

Batzuentzako plazer handia
segun ze lan egitea,
horiei gauza diren artean
zabalik utzi atea.
Beste batzuek bizi osoan
ez probatzeko suertea
ta *absentismo laboralaz*, zer?
Sarri iruzur betea...
Baina, ertzainei barkatzen diet
lanera ez joatea.

III

Bizi osoko maitasun hura
eraman du iraganak.
Bizi osoko gauza berriak
gugana heldu diranak:
Bizi osoko kartzelaldiak,
eta hipoteka planak,
Bizi osoko soldata(k) batzuk
karguren batek emanak (?)
ta izerditik jaten duenak
bizi osorako lanak.

VI

Lan erreforma mahai gainean
krisiak aurrera darrai.
Zama, jasaten ari denari
eta sortu zutenek jai.
Aberastasun pimarideak
behar du eztabaidagai.
Erreformaren efikazia
ez dut zalantzan jarri nahi:
Lan egiteko jende gehio ez,
kobratzeko gutxio bai.

DOINUA: Bogart eta Bilintx.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

Musika

Akordeak ahaztu(arazi)tako oroimenari

Azken hamarkadan ugariak izan dira Guda Zibila eta haren biktimak aitzakia hartuta argitaratu diren lan musikalak. Urteetan ahanzturan izan diren “galtzaileei” oraindik aitorpena zor bazaie ere, Barricadako Enrique Villarealek (‘El Drogas’) dioen bezala “omenaldia gure buruei egingo diegu, gertatutakoa ezagututakoan gure kriterioa osatzen dugunean”.

Urte haietan gertatutakoa kontatzeko etorri dira sorkuntza hauek, eskolan eman ez dizkiguten historia klaseak entzuleari emateko.

LANDER MUÑAGORRI

ARMA BAT GEHIAGO, horixe bihurtzen da musika gerretan. Etsaiaren balak buru gainetik dantzan igarotzen direnean, soldaduak dantzan jartzeko ez, motibatzeako arma boteretsua da. Hala izan da, eta gisa berean jarraitzen du gaur egun ere. Irakeko gerr(et)an Johnny ikusi dugu telebistaz heavy metala entzun bitartean ‘pepinoak’ jaurtitzen; eta ikusi, baita ere, 1936ko Guda

Joseba Tapiaren
Agur Intxorta maite
diskoko azalean
argitaratu zen
beheko argazkia:
gudariak lubakian,
soinu txikia lagun.

Zibileko argazkietan, lubakiaren eta adiskideen fusilen babesean, trikitilariak euskal gudariak animatzen.

Trikitilari-gudarien argazkiok, izan ziren Joseba Tapia *Agur Intxorta maite*, 1936-37 gudako kantuenak (Gaztelupeko Hotsak, 2001) diskoa egitera bultzatu zutenak. Garai hartako guda kantak biltzen eta ikertzen aritu ostean argitaratuta-



ko lana izan zen, ordura arte plazartu eta egungo gizarteari transmititu gabeak. “Gezurra badirudi ere, azken gerratik ez da *Eusko Gudariak* kanta besterik iritsi”, zioen diskoa aurkeztu jardun zuen garaian. Mugarria jarri zuen Tapiak, ostera Euskal Herriko panorama musikalean hainbat taldek hartu baitute gai bera diskoak eta abestiak sortzeko. Lehenagotik gerrari buruzko lanik egon bazegoen arren, azken urte hauetan nabarmena izan da gorakada. 1936ko gudak, eta guda osteko errepresio frankistak zeresana –eta zer kantatua– ematen baitu oraindik ere.

2000ko hamarkadan zehar Guda Zibileko “galtzaileen” inguruan lan ugari plazaratu dira. Horien artean aipa genitzake esaterako, Bide Ertzean-en *Non dira* (Gaztelupeko Hotsak, 2006), Barricadaren *La tierra está sorda* (Dro, 2009) edota Ahaztuak 1936-1977 elkarteak argitaratutako hiru bildumak: *Oroitzapenerako kantak – Canciones para la memoria I, II, III* (2007, 2008, 2009).

Abiapuntu ezberdinak

Loraldi moduko bat gertatzen ari dela esan daiteke, hortaz. Pixkanaka, eta gelditu gabe zabaltzen ari den lore-begia. “Ezjakintasun handia zegoen gaiaren inguruan, bereziki gure belaunaldikoen artean” azaldu du Imanol Ubeda Bide Ertzean taldeko kideak. Eta ezjakintasunari jakinmina gehitzen bazaio, sormena dator; eta kanta berriak.

Hala gertatu da behinik behin Bide Ertzeanen eta Barricadaren kasuan. Etxean garai hartako desagertuak dauzkate tolosarrak, eta haien nondik norakoak jakin nahiak bultzatu zituen Guda Zibilaren gaia aztertzen hastera. “Liburutuan piztu zitzaigun jakinmina, eta konturatu orduko barruan pilatzen zitzaizkigun galderentzat erantzun bila genbiltzan” dio Ubedak.

Barricada talde iruindarrak berriz, *La tierra está sorda* diskoaren liburuxkan onartzen du lan hori egiterakoan “gaiak geneukan ezjakintasuna onartzetik” hasi zirela. Orain askoz gehiago dakite; diskoaren liburuxka esku artean hartzea besterik ez dago. Dokumentazio zabala bildu ostean, gerrari buruzko kezka sortzeko atximurra izan nahi du disko-liburuak *Drogas*-en hitzetan.

Bestelakoa da Fermin Balentzia abeslariaren kasua. Nafar hau 1970. hamarkada hasieratik ari da gai hauei buruz kantuan,



Goitik behera, Bide Ertzeanen *Non dira?*, Barricadaren *La tierra está sorda* eta Ahaztuak elkarteak kaleraturiko *Oroitzapenerako kantak*-en hirugarren bilduma.

“Ezjakintasun handia zegoen 36ko gerraren inguruan, bereziki gure belaunaldikoen artean”

IMANOL UBEDA

protesta-kantaren garaitik gaur arte. “Frankismoak utzi dizkigun ondorengotza batzuk oraindik hor daude, erregearengandik hasita. Eta nik hori guztia ikusi, eta ezetz diot. Horregatik historia hasieratik k(o)antatu nahi dut”. Balentziak bere abestietan frankismoko biktimak aldarrikatzeaz gain, “euren ideiak errebindikatzen ditut, borrokatu zuten guztiarengatik abesten dut”. 30 urte daramatza Francoren biktimak gogora ekartzen, baina ez du diskorik grabatu. Herriz herri jardun du bere mezua zabaltzen.

Helmuga berbera

Musikari bakoitzak bere bidea egin du; denak iritsi dira, ordea, helmuga berera. Baina zergatik eman da orain loraldi hau? Gaiak interesa dauka, Fermin Balentziak eta *Drogas*-ek onartzen duten bezala, baina zergatik berebiziko interes hori garai hauetan eta ez lehenago?

2004. urtean Espainiako Gobernua Memoria Historikoaren Lege Egitasmoarekin hasi zen bueltaka, zeresan eta kritika ugari jaso duena. “Gure ustez, alderdi sozialista lege horrekin hasi zen popularrengandik banantzeko eta eurak desgastatzeko asmoarekin. Ez zuten marketin politikotik harago begiratu” dio Ahaztuak elkarte bozeramaile Martxelo Alvarezek. Balentziaren hitzetan “sendatu gabe, zauria garbitu nahi izan zuten”. Era batera edo bestera, Guda Zibilaren eta “galtzaileen” inguruan mintzatzen hasi ziren hedabideak, eta gaia eztabaida publikoaren plazara irten da. “Urte haie-tan gertatu zenaren inguruko interesa bultzatzen duen ekimen oro ongiatorria izango da beti” dio *Drogas*-ek. “Memoria Historikoaren Legea hankamotz geratzen baita, baina elkarte memorialisten ekitaldi eta erribindikazioak ugartitza ekarri du, gutxienez”.

Balentziaren irudiko “orain arte gaiak hitz egin ez bada, izan da ‘galtzaileak’ ixilik egon direlako”. Alvarezek dioenez “musikan gainontzeko esparruetan bezala, orain hasi da, batez ere, gai horri buruz mintzatzeko”. Baina 1936ko gerraz badauzkagu Euskal Herrian argitaratu ziren liburu ugari. Adibidez, *Navarra 1936, de la esperanza al terror* (Altaffaylla, 1986) edota *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian* (J. Chueca, L. Fernandez, Egunkaria, 1997).

Kantak berreskuratzen, transmisioa sustatzeko

AHAZTUAK ELKARTEA LAN ESKERGA egiten ari da 36ko biktimen memoria berreskuratzen. Kaltea konpontzeko, egia bilatzeko eta justizia lortzeko egiten dute lan. Garai hartako pertsonen testigantza biltzeaz gain, musika alorrean ere jardun azpimarragarria egin dute. Lan horren adierazgarri, argitaratu dituzten hiru kanta-bildumak, doinu zahar eta garaikideekin osatu dituzten diskoak.



Martxelo Alvarez, Ahaztuak elkarteko kidea.

“Musikaren baitan gauza asko berreskuratzeke zegoela iruditu zitzaigun, erresistentzia antifaxista eta Errepublikara garaian sormen handia egon baitzen literatura, musika eta beste hainbat esparrutan. Berreskuratu beharreko zerbait izateaz gain, esperientzia haiek transmititzeko musika tresna egokia izan zitekeela ere iruditu zitzaigun” azaldu du Alvarezek.

Ildo horri jarraituz, musikak duen funtzio pedagogikoa nabarmendu du Ahaztuak elkarteko bozeramaileak. “Musika belaunaldi berrietara errazago iristen da, eta arrastoaren atzetik jar dezake bat baino gehiago”.

Plazaratutako hiru bildumetan era guztietako musikariek hartu dute parte. Espainiar estatuko sor-

tzaileek –Gente del Pueblo andaluziarrek, Nuberu asturiarrak edo Aura Kuby kantabriarrak besteak beste–, eta noski, baita euskaldunek ere. Elkar-teak kanta zaharrak berreskuratzen lan egin badu ere, sorkuntza berriek leku nabarmena daukate diskoetan, batzuetan bereziki diskorako eginak. Adibidez, Jon Maia Karidadeko Bentarekin bere aitoren oromenez kantuan entzun dezakegu, Amaia Zubiria Maria Rive-

rorekin batera, Petti Imanol zenaren kanta bat interpretatzen edota Mikel Urdangarin gaztelaniaz abesten. Hasiera batean Ahaztuak elkarteko kideek bilduma bakar bat argitaratzea pentsatua baldin bazeukaten ere, gerora bi gehiago etorri dira, eta Martxelok aurreratu digunez, laugarrena ere laster iritsiko da.

Bakarlariak, rocka, popa, rapa eta beste hainbat musika estilo elkartu dira lan hauetan, entzulego ahalik eta zabalenarengana iristea helburu. Kasu honetan garrantzitsua ez baita musika estiloa, kanten hitzetan esaten den guztia baizik.

Beraz, Memoria Historikoaren Lege hark gizartean zeresana sortu bazuen ere, horrek ez du esan nahi ezinbestekoa izan denik loraldi berri hau gertatzeko. Joseba Tapiaren diskoa hiru urte lehenago argitaratu zen, eta hona ekarri ditugun gainontzeko adibideek ere ez dute egitasmo hura oinarrian, inondik inora ere.

Arrazoiak arrazoi, egia dena da Guda Zibilaren inguruan kantutegi berria

“Frankismoaren biktimen ideiak errebindikatzen ditut, borrokatu zuten guztiarengatik abesten dut”

FERMIN BALENTZIA

sortu dela. “Olatu honek korapilo asko askatu ditu” Ubedaren hitzetan. Gure herrian bizi izan dugun azken gerrako biktimak ez dira oraindik ahaztu, eta ez dira ahaztuko abeslari batzuen ekimenari esker. Fermin Balentziak dioen bezala, “nik *Alto de Laiti* kanta abesten jarraituko dut jendeak jakin dezan hura zer izan zen, eta zer izatera iritsi zitekeen”. Kantaren hitzak dioen bezala,

“zuen historia jarraituko dugu”... ■

Kaluoka'hina, uharri sorgindua

Uharria salbatu nahi duten arrain koloretsuen abenturak bizituko dituzu **Planetariumeko** saio berri honetan.

gizarte ekintza
herriekintza

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

943 01 24 78

www.kutxa.net

Zinema eta Pintura

Haragiz eta klorofilaz egindako behiak

Aurten hogeitau urte beteko dira Bixente Ameztorenen *Karne & Klorofila* erakusketa ibiltaria zabaldu zenetik. Lan hark eragin nabarmena izan zuen beste donostiar batengan. Julio Medem zinema zuzendariak ari gara. *Vacas* (1992) lehenengo film luzean nabarmena da eragin hori; kredituetan irakur daiteke zuzendaritza artistikoan lagundu zuela Ameztoik, eta gainera, aizkolariaren eta segalariaren irudiak egin zituela. Lotura argiak dira horiek, baina bien arteko eragina estetikoa al da soilik? Ba al dago lotura sakonagorik? Horixe deskubritzea da, hain zuzen, artikulu honen asmoa.

ION OLANO

KARNE & KLOROFILA erakusketa ibiltaria, besteak beste, Donostiako Artelekun izan zen zabalik, 1990eko apirilaren 24tik maiatzaren 30era. Atzera-begirako erakusketa horri esker, jende ugari ezagutu ahal izan zuen Ameztorenen ikuskera berezia. Besteren artean, Julio Medem gazteak: "Ikusi nuenean natura hostotsu hori, non sexua hazten den herio artean, euliz inguratuta... ikusi nitue-nean paisaia horiek, libidoa loretan dutela, lastozko giza-irudiz beteak... euskaltasunaren gaineko ikuskera berezi hori, lilura eta txantxaren artekoa... berehala pentsatu nuen hori guztia izan zitekeela Manuel Irigibel 'aizkolari koldarra'-ren unibertsoaren parte, zeina mundu honetatik erbesteratzen den behi baten begia zeharkatu ondoren. Nire behiak eta ni beti izango gara zorretan Bixente Ameztoi maisuarekin".

Behiak

Hainbat ikerlarik hartu dute oinarri Medemen *Vacas* filma, eta hainbat gai jorratu izan dituzte. Materiala hain ugaria izanik, jo ditza-gun pintzelkada lodi batzuk, ideia orokor bat egite aldera. Oro har, ikerlariak bat datoz esatean Medemek hautsi egiten duela baserri-giroaren jatorrizko irudia, istorioan keinu ironikoak eta elementu dramatikoak txertatuz. Beste horrenbeste esan genezake Ameztorenen lanari buruz ere.

Bestalde, ikerlari gehienek estetika posmodernaren baitan kokatzen dute Medemen lana. Javi Cillerok *pastiche*-aren erabilera eta testuartekotasuna azpimarratu ditu, defendatuz horrek lagundu egiten diola ikus-entzulea-

ri, beste film eta liburuetako arketipoak identifikatzen, eta pertsonaien gatazkak ulertzen. Ibon Egañaren aburuz, filmak euskal identitatea berrirakurri egiten du modu alegorikoan, abertzaletasunaren hainbat sortze-mito berridatziz: esate baterako, euskal gudariarena. Hala, etsaiari tiro egiteko gai ez den soldadua aurkezten digu, ondoren babesa bilatzen duena artean, bizitza eta heriotzaren arteko eremuan. Nolanahi ere den, euskal abertzale-tasunaren hastapenak berridaztean, Medemek uko egiten dio baserri-giroa idealizatzeari, eta hortaz, proposatzen du espazio mitifikatu hori idealizatzeari uztea, berriro kokatzea bere testuinguruan.

Gizarteko dualtasunek pisu dute hala Ameztorenen nola Medemen lanetan, eta badirudi bien asmoa dela bitasun horien mugak lausotzea

Haragia (Odola & Okela)

Vacas-en odolak duen presentzia nabaria da hasieratik bertatik. Manuel Irigibelek auzo aur-

kariaren odolez pintatzen du aurpegia, eta hildakoarena eginez egiten dio ihes heriotzari. Filmeko kontakizuna bi gerren artean kokatzen da, 1875 eta 1936 artean, eta bitartean horretan familiaren odolak hartzen du pisu nagusia. Izan ere, bi familien arteko harreman lehiatsu eta grinatsuan oinarritzen da filma. Bien arteko ezinikusiak liskarrean bizi den gizartearen erakusle izan litezke, eta era berean, filmeko bi familiak —Ameztorenen koadroko bi gizon-poxpolinak bezala— euskal gizartean oso presente dauden dualtasunen adierazle. Bi muturren artean bizi behar diren ondorioz sortuko litzateke, hortaz, begirada iheslariaren beharra.

Familia erretratuen adibide bana topa dezakegu *Vacas* filmean eta Ameztorenen

lanean. Bietan iradokitzen da erretratua familiaren batasun irudikatua dela, alde banatuak batuta erakusteko antzezpena. Filmean halako tentsio bat nabari da erretratua egiteko unean, eta Ameztoren *Familia* (1975) koadroan, berriz, erretratuaren ezohikotasuna begibistakoa da.

Indar erotikoaren presentzia, bestalde, funtsezkoa da artista bien lanetan. Esplizituki irudikatzen da zenbaitetan, Ameztoren koadro batzuetan edo *Vacas*-en basoko enkontruetan, esaterako. Sotilagoa da filmean adibidez, haizearen bidez adierazten denean Inaxio Irigibel eta Kattalin Mendiluzeren arteko desira. Haize horrek mugiaraziko du segalariaren irudia, txapela karlistaz jantzita eta segaz armatuta dagoen txorimalo birakaria.

Sexuaren pisuaz gain, bi artistek erabiltzen dute generoa kontzeptu aldagarri moduan, edo behinik behin, kontu hausnargarri gisa. Tanya Romero-Gonzalez ustez, “generoaren de(kon)strukzioa konstante bat da Medemen filmetan”. Azken esaldi hori Ameztoren lanari ere atxiki dakioke, bere giza-irudiak maiz direlako sexu aldetik anbiguoak, eta irudi horiek hausnartzera garamatzatelako, sozialki erakitako generoen eta identitateen gainean.

Klorofila (Basoa & Zuloa)

Landaredi artean nahasten ditu Ameztoki mantasuna eta heriotza, Eros eta Tanatos, eta halako zerbait egiten du Medemek ere. Azken honek elkarrizketa batean azaldu zuen txikitatit erakarri izan dutela Euskal Herriko basoek. “Hain zuzen, amets sexualak nituenean baso sakonak imajinatzen nituen, garoaren azpian zegoen hori, hezetasuna, joritasuna... halako zerbait sumatuen Bixente Ameztoren koadroetan ere.”

Landarediaren artean dauden zuloak ere oinarritzeko dira, bai filmean, eta baita Ameztoren lanean ere. Misterioa iradokitzeaz gain, ihesa ere ahalbidetzen dute zuloek, izan ere, hutsuneak zoramenarekin lotuta daude, baina babeserako ere balio dute. Manuel Irigibelek herio ziurrari ihes egiten dionean, behia agertzen da lehen aldiz fil-



Familia da Ameztoren eta Medemen lanetako elementu komun bat. Bai goiko koadroan, bai beheko sekuentzian familia batasun irudikatu moduan aurkezten zaigu, banatuta daudenak elkartuta aurkezteko batasun gisa.

mean, eta kameraren begia hurbiltzen da haren begira. Euliz inguratuta dago, entzuten dugu hegaleen burrunba eta kamera hurbildu ahala, ikusten duguna iluntzen doa, beltz bihurtzen. Zulo biribil bat zabaltzen da orduan, eta erakusten digu Irigibel baserria 30 urte geroago, behi baten ikuspegitik. Horixe da, Medemen esanetan, gehien interesatzen zitzaiona: irudime-nezko leku bat sortzea, behien mundua, non erbestera daitekeen Manuel Irigibelen kontzientzia. Medemek aitortzen du, halaber, behiaren begiak baduela sinbolikotik, baina baita txantxatik ere. Adieraziko luke, giroko tentsioari ihes egiteko modu bakarra, azken batean, behi baten barruan sartzea dela.

Tradizionalki, babesleku gisa azaldu izan da baserria, eta basoa berriz, leku misterioitsu eta arriskutsu moduan. Filmean, basoa bizitzaz beteriko leku misterioitsua da, hain zuzen ere, bere

bihotzean zulo artagarri bat dagoelako. Ematen du zuloak bere burua odolez elikatzen duela, hala mantentzen dela piztuta. Zentzu horretan, Isabel C. Santaolalla ikerlariaren iritziz, zulo piztu hori suntsitzeko gaitasunaren sinbolo izango litzateke, sexu-organo emearekin loturikoa. Haren ustez, zuloak halako dimentsio politikoa hartzen du, nolabait iradokiz Euskal Herriaren ideia (Ama-lurra) bere ondorengoak irensten, eta ase ezinik.

Laburbilduz, esan genezake Ameztoren eta Medemen espresio artistikoak neurri handi batean direla poetikoak, sinboloek ez dutelako esanahi argirik, anbiguoak direlako muturre-raino. Era berean, gizarteko dualtasunek badute pisurik bien lanetan, eta badirudi bien asmoa dela bitasun horien mugak lausotzea. Ameztoren kasuan argia da nahastu egiten direla (gizon-emakume, giza-landare, baserri-hiri, erlijioso-pagano, eta abar), eta Medemek bere aldetik argi utzi izan du identitateak berri-rakurri egin behar direla, eta aldean arteko berradiskidetzea eta baketzea beharrezkoa dela. Oro har, esango genuke biek ala biek proposatzen dutela halako berrirakurketa bat identitateen gainean. Ez soilik euskal identitateena, baizik identitateena, oro har. ■

Hil-oharra

Joxemiel Bidador, noranahiko intelektuala

Joxemiel Bidador, idazle, dantzari, filologo, ikerlari, irakasle, euskaltzale, alkate, lagun, bi alabaren aita, otsailaren 26an ospitaleratu zuten, buruan odol-isuria izanda. Joan den asteartean, martxoak 2, hil egin zen. 39 urte zituen.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkia: Josu Santesteban

ALBISTEA, laban hotza, bizkarretik iritsi zen euskal hedabideetara. Askorekin kolaboratu zuen: *Euskaldunon Egunkaria*, *Berria*, *Euskalerria Irratia*, ARGIA... Ganibet gaiztoak zauritu zuen, halaber, dantza mundua: Duguna taldeko kide, San Lorentzoko dantzen sorreran partaide, *Dantzariak* aldizkariaren koordinatzaile, beti ikerle, beti langile. Eta aitzoa euskal literaturaren bihotzeraino sartu zen: galdu da Nafarroako euskal literaturak izan duen historialari saiatuenetariko bat; *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra* irakurtzea besterik ez dago, horretaz jabetzeko. Liburu horrekin batera aurkeztu zuten, 2004ko abenduz, *Baziren, bagara* manifestua. Orduan inork gutxik pentsatu zuen, bost urte pasatxoren buruan, Bidador esaldiko aurreneko hitzera eramango zuenik heriotzak.

Gasteizen ikasi zuen euskal filologia. Laugarren mailan eskatu zioten euskal idazle bati buruzko lana egiteko. Eta Bidadorrek Enrike Zubiri *Manezaundi* aukeratu. Irakasleak ezetz. Aukera zezala “Bizkaiko idazleren bat”. Ezin dugu jakin nori buruz egin zuen lana; bai ordea, har bat sortu zitzaiola barruan; eta denborarekin, Nafarroa ofizialak herrialdeko euskal idazleei eskaintzen zien tratatu eskasa ikusirik –baita, zertarako uka, EAE ofizial eta ofizioso ia guztiak ere–, lanari ekin zion. “Zerbait egin behar zela iruditu zitzaidan” esan zion Alberto Barandiarani *Berrian*, “zerbait” hori, Nafarroako euskal literatu-

raren historia ezagutzeko ezinbesteko liburua, aurkeztu zuelarik.

“Zerbait”. Irakurtzen dituzu Bidadorrek *Egunkariako Nafarkaria* gehigarrian idatzitako “Klasiko bitxi, arront klasiko” saileko artikulak, eta daukazun sentsazioa da norbaitek, disimuluan, opari handiegia egin dizula. Handiegia esker hitz egokiak aukeratu ahal izateko. Eta sentsazio horrek inguratzen du Bidador bere osoan. Haren lagun Patxi Larrionek baieztatu du, telefonoren beste aldetik: gizon “abar-kaezina” zela, hainbeste eremutan hainbeste lan. Jon Alonsorekin batera idatzia dio testu bat, *Biba Bidador*. Handik hartu dugu esaldia: “Basamortuan putzua ateratzeko zale, jakinik putzuak badirena, eta bilatu egin behar direna. Ez ohi dugu sinesten zerbait ostu digutela, ez eta sinesten dugulako plantak egiten ditugunean ere. Joxemielek gure buruarengan sinesteko indarra ematen zuen bere jakinduriaz”.

Eta jakinduria hori oparitzeko trabarik ez: batek oroitu du zein eskuzabal utzi zion bere ordenagailutik nahi adina artxibo kopiatzen, kafe bat prestatzera joanda; beste batek dio irakaslerik onena bera zela; hirugarren batek, Bidadorrekin hitz egiten zuenero, zerbait ikasten zuela. Erudizio horren parte bat utzi du liburu eta artikuluetan. Gaur malkotarako diren begiek, irakur ditzatela bihar merezi duten arretaz. ■



Bidadorrek *Egunkarian* eta *Diario de Noticiasen* idatzitako artikulak bildu dituzte webgune batean: armiarma.com/emailuak/bidador

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Bizitzari txistuka.
Betagarri.
Elkar.
Iraupena: 53'47".
12 euro.

Dantza norbere barrutik hasten delako

GASTEIZTARREK bizitzari txistuka jarraitzen dute haizeari aurpegia emanda eta beti aurrera eginaz. Disko hau lokalean bertan grabatu dute eta oso dotorea da. Jamaikako usaina ezin dute gaineratik kendu —eta ez dute nahi—, baina oraingoan Kubako maisuen beteranotasuna eta soinua gehitu dizkiete haizezko instrumentuei zenbait abestitan. Bestalde, badira Mighty Mighty Bosstonesen pareko erritmo zoroa duten piezak, taberna zuloetan mozkorrek elka-

rrekin abestu ditzaketenak —gaztelaniaz—, soul alderdi handiagoa dutenak, rockean erabat barneratutakoak ingelesez, The Clash-en arrasto itzela dutenak eta REM taldearen pareko leloak batu dituztenak ere —ez da broma!—. Baina ez dira aldatu. Eta hitzetan, ederto jantzitako istorio xamur bezain egiazkoak aurki ditzakegu, gertukoak eta tarteka hunkigarriak.

www.betagarri.com

Betagarri

«Joe Strummerrek iraultza garrantzitsua egin zuen; ezinbestekoa da musika ulertzeko dugun moduan»

“Haizeak ez lituzke eramango amodiozko hitzak norbaitek idatzi izan balitu abesteko”. Gauza asko daude jaso beharrekoak, ezta?

Abestiak egitearen inguruko hitzak dira, eta hainbeste jenderentzat hain garrantzitsuak diren abestiei buruz. Horretaz aparte, oso erromantikoa gara [barrez].

Sweet Mary moduan bizitza bikoitza duzue? Zelan uztartzen dituzue ska tiranteak eta mantal zuria?

Ez da erraza halako bizimodua egunerokotasunean ezartzea: semeak, bikoteak, oporrak... Laster hamazazpi urte izango dira hasi ginenetik eta gai izan gara, nola hala, bizimodua aurrera eramaten. **Irratitik deika** Joe Strummerri omenaldia da? Soinu beltza eta rocka batzeko orduan, eredu dira The Clash zentzat?

Bai. Strummer oso pertsonaia garrantzitsua izan da musikaren his-



torian, eta batez ere guk ulertzen dugun moduan. Izan ere, musika modu askotan uler daiteke, eta Strummerrek iraultza garrantzitsua egin zuen, gero askok jarraitu zutena. Bestalde, eredu izan ziren estilo nahasketa horretan, baita gizarte-kritika erabiltzen, ez nihilisten moduan, beste jarrera batekin baizik.

90 minutuko zintak. Musikak eta kan-
tek lehen besteko balioa dute gaur
egungo entzuleentzat?

Guk lehen ordu eta erdiko musika zinta bat osatzeko, orduak ematen genituen grabaketak egiten, lagunei zintak eskatzen, irratitik zuzenean grabatzen eta “gure” zinta osatu eta maite genuen. Orain, gaztetxoek, pendrive batekin 7.000 abesti elkartrukatzeko dituzte, eta horrek hala-beharrez, balioa kentzen dio musikari. Triste da, baina hala da.

“Begiak”, “begirada”... askotan agertzen dira hitzetan. Begiekin “entzuten” duzue?

Pertsona baten izaera begietan laburbildu daiteke. Zaila da begiekin gezurra esatea. Neska batek daukan ederrena begirada da. Aspaldian taldean erabiltzen dugun esaldia “*la vida es fijarse*” da; eta egia da, begiak zerbaitegarako ditugu. ■

Liburuak

KRITIKA

Olagarro bat bainuontzian.

Testua: Leire Bilbao. Irudiak: Morkots.

Elkar.

32 orrialde. 6,30 euro.

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle



Maskota bitxiarena

MIKEL GAZTETXOA dugu istorio honetako narratzailea. Aitak egun batean arrantzara joango direla esaten dio eta horrela, ekin-tza xume eta sinple horretatik abiatuta, hainbat eta hainbat gerta-kariren lekuko izango gara.

Oker ez banago hau da Jose Mari Morcillo "Morkots"-ek ilustratu duen aurreneko liburuetako bat eta aipagarria da testuaren eta irudiaren garrantzia lan guztian. Izan ere, ez gaude album baten aurrean baina irakurketa prozesuan edo liburuetako garapen bat egin beharko bagenu haxe izango litzateke albumaren ondorengo urratsa. Irudi asko eta testu gutxi izan arren idatzizkoak badu-eta autonomia. Hori bai, kasu honetan irudia, zenbaite-tan, testua baino harantzago doa informazio aldetik –haitzetara iritsi eta arrantzan hasten direnean bezala, ikusgarria da aitaren aurpegia eta larritasuna, Mikelen egoera lasai eta alaiaren parean–.

Mikel eta aita arrantzara doaz, eta legatz edo bisigu bila ari badira ere, azkenean olagarro bat harrapatuko dute. Aitak aitona-ri buruzko komentario bat egingo du –bere galiziar errezeta sekretua proban jarri ahalko duela– baina Mikelen asmoak beste alde batetik doaz. Mikeli ez diote maskotarik edukitzen uzten etxean, ez katurik ez zakurrik, baina inork ez dio ezer esan olag-arroei buruz. Eta horrela Erro, izen horrekin bataiatu baitu Mike-lek olagarroa, Mikelen maskota izango da.

Jakina, amari ez dio graziaz egingo bainatzera joan eta olag-arro bat aurkitzea bainuontzian; eta etxean zeuden arrainak –uron-tzian zeudenak– desagertu egingo dira Erro han ondoan egon eta gero. Aitonak ere berroaren bat edo beste izango du Erroekin, eta azkenean irtenbidea bilatuko dute –hobe izango litzateke esa-tea amak inposatzen duela irtenbidea– olagarroarentzat.

Narrazio laburra dugu, egun batean jazotakoak biltzen ditu, baina, hala ere, kontu asko aipatzen ditu. Idazkera, erritmoa, bildumaren ezaugarriek markatzen dute. Irudiez osaturiko orriak, testu gutxirekin, ideia nagusiak aipatuz eginiko umore kutsuko narrazioa.

Argumentua ez da berria –G. Durrelli irakurriak dizkiogu antzekoak, esaterako– baina Bilbaok ederki lortu du ipuinari dagokion tonua eta amaiera orijinala eta logikoa bilatzen, lastima irudien artean dagoen desoreka. Batzuetan –lehen planoetan– galdu egiten baitute, eta besteetan, aldiz, nahiko lortuak direlako.

Edozein modutan, *Olagarro bat bainuontzian* nahiko liburu interes-garria da, gustura irakurtzen den istorioa izateaz gain ederki eginak dituelako tonua, erritmoa eta irudi eta idatziaren arteko oreka. ■

Iruñeko literatur lehiaketetako idazlanak

Iruñeko Udalak liburu batean argitaratu ditu 2006tik 2009ra bitartean antolatutako literatur lehiaketetan saritutako lanak. Egile berriendako literatur lehiaketa, haurrentzat egindako antzerki testuena eta Iruñeko gaz-teei zuzendutakoa. Gainera, "Artista gaz-teak" lehiaketetan irabazle suertatu ziren lanen irudiekin jantzi dituzte testuak, edizio dotorea osatzeko. Narrazio laburrak, poe-

mak, bertsoak eta antzerki testuak daude liburuan. Nafarroako luma berrien harrobia osatzen dute, besteak beste, ondorengoek: Iñaki Berzal, Eneko Aizpurua, Gorka Urbizu, Ander Perez, Ziargi Etxarte, Ander Fuen-tes, Julio Soto, Irantzu Bergara, Amaia Lopez, Ane Gonzalez, Saioa Alkaiza, Ainara Este-ves, Leire Erbiti... ■



Iruñeko Udalaren literatur lehiaketak. Batzuen artean. Iruñeko Udala.
429 orrialde.
10 euro.

Juan Mari Lekuonari omenaldia

Euskaltzaindiaren Iker saileko azken libu-rua Juan Mari Lekuona zenari eskaini diote. 2005ean zendu zen euskal idazle eta apaiz oiartzuarra, arrasto sakona utzi duten hain-bat literatur lan ondare utzita. Andres Urrutia euskaltzainburuak egin du liburuaren hitzaurrea, oso modu pertsonalean egin ere: Urrutiak gogora ekarri du akademiaren osoko bilkuran Lekuonak hitza hartzeko egin zion keinua; baita bukatutakoan nola zoriondu zuen ere. Liburuan aurrera egin-da, berriz, Iñaki Aldekoa, Xabier Altzibar, Ur Apalategi, Gorka Aulestia, Jon Casena-ve, Juan Kruz Igerabide eta beste hainbaten idatziak. ■



Juan Mari Lekuonari omenaldia. Batzuen artean. Euskaltzaindia.
443 orrialde.
18 euro.

ANA ZAMBRANO

Gaia: Urdaibaiko herriak



	H	M	G	D	
	H	I	R	O	T
		R	O	N	I
B	S	L	D	A	P
L	E	K	A	R	L
R	S	A	K	Z	A
A	M	A	K	K	A
E	T	I	M	O	N
F	O	X	A	R	B
			O	N	E
			G	E	N
			A	A	A
			A	L	O

Ezpalak

JON TORNER

‘Kulturklik’ webgunea sortu du Eusko Jaurlaritzak



EUSKO JAURLARITZA-KO Kultura Sailak *Kulturklik* (www.kulturklik.euskadi.net) webgune interaktiboa jarri du abian. Kultur-eragileen topaleku izan nahi du, eta lau

atal nagusitan banaturik dago: Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko kultur ekitaldiak biltzen dituen *Agenda*, arloz arloko proiektuen inguruko *Edukiak* saila, diru-laguntza eta abarrei buruzko azalpenak eskaintzen dituen *Ezagutza*, eta *Albisteak*.

Bilboko Campos Eliseos antzokia martxan da berriro



EU.WIKIPEDIA.ORG

SEI URTEKO zaharberritze lanen ostean, martxoaren 11n ekin dio programazio berriari Bilboko Campos Eliseos Antzokiak, Kukai dantza taldearen (SOK)2 ize-neko sorkuntzarekin.

Zazpi dantzarik eta hiru musikarik Pantxika Telleria eta Jon Mayaren koreografia taularatuko dute. Bilboko Udalak du antzokiaren jabetza baina kudeaketa Espainiako Egile eta Editoreen Elkartearen (SGAE) esku izango da datozen 30 urteetan.

Mattin Irigoienek eta Xabier Artolak irabazi dituzte Kutxak antolatutako Donostia Hiria literatura sariak. Hitza eta mugimendua uztartzen dituen *Jendeak jende* obrarekin irabazi du Irigoienek antzerki ataleko saria. Artolaren *Deception Island* bi planotan banatutako ipuin dramatiko da.

Ze esatek! taldeak estreinako diskoa plazaratu du Baga Biga zigiluarekin. Trikizio, The Txortains, Skunk eta Harlax taldeetan ibilitako musikariek osatu dute taldea. Hilaren 13an Ondarroan eskainiko dute kontzertua, 19an Deuston eta 20an Añorgan. Interneten: ww.myspace.com/zeesatektaldea.

‘Baztan’, agoteei buruzko filma hasi da errodatzen Iñaki Elizalde zuzendaria. Baztanen bertan grabatuko dute, Lekaroz herrian. Unax Ugalde, Carmelo Gomez, Kandido Uranga eta Txema Blasco aktoreek hartuko dute parte pelikulan, besteak beste.

●Ruper Ordorika musikariak *Mintzan*.

Kazetariaren galdera: «‘Inork ez du koblaririk behar’... *Martin Larralde* abestian kantatzen duzu. Anitzetan sentitu al duzu hori?».

Erantzuna: «Uste dut koblarik gisa dabilen nahinork sentitu izan duela hori inoiz. Idazten, irratian edo jendaurrean ibilki diren guziek. Baita gauza ‘produktiboak’ ez diren horiek egiten dituztenek ere, dela arotz bat... pertsona egiten duen lanarekin lotzean gertatzen da... ez dakit, barnetik ateratzen den zerbait da, Xalbadorren kasua arketipoa da adibidez».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Ugarte
Nekazaturismoa

Bebailara,
20159 ASTEASU
Tel.: 943 69 27 22 / 657 72 53 21
e-posta: legarrayolan@yahoo.es
www.nekatur.net/ugarte

ellaury
HOTELA

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellaury.com

Naturazko antzinak

Abarrak

ESTITXU EIZAGIRRE

Bazen behin... potxolada bat telebistan

Ipupomamua. Zuzendariak: Iñaki Agirrezabal / Anjel Alkain. Nagore Aranburu. Iraupena: 25 minutu.
Ikusteko: Ostiraletan 16:30ean ETB1-en; ostegunetan 21:30ean ETB3-n; eta eitb.com-en denak ikusgai.

Gustura sentitzen naiz Ipupomamua programak sortzen duen mundu imaginarioan. Gidari atseгина da Aranburu, exageraziorik gabe, halako baretasun positibo bat transmititzen duena. Bizikletaz eramango zaitu gaira: tren geltokira, untzi museora...

Dosi txikitan, pertsonaia asko agertuko zaizkizu pantailan, bakoitza ongi zehaztutako lanera: gaiari lotutako liburu batzuk ekarriko dituen liburuzaina, pasarteren bat irakurriko duten haurrak, ilustrazioak azalduko dituen artista, zinemara eramandako filmen argi-itzalak agerian utziko dituen zinefiloa, telebistara hitzaren magia ekarriko duen ipuin-kontalaria...

Potxolada bat. Haurretatik kozkorretara, adinaren arabera gehiago edo gutxiago ulertuko dute umeek



haria, baina adin tarte zabal horrentzat badu erakargarritasunik. Eta gurasoei ideia asko ematen dizkie, ipuin berriren bat ikasiko dute agian, edo kontatzeko modua, ipuinen erreferentziak...

Moralinarik gabe, modu naturalean hainbat balio transmititzen ditu, detaile txiki bidez. Aipaturiko txirindaz gain, etxean kontatzen dugu programa horretan entzundako gabon ipuina, birziklatzearekin lotutakoa.

Proposamen gisa, gai konkretuekin batera (elurra, itsasoa...), pertsonaren garapenarekin lotuta dauden gaiak gustura ikusiko nituzke programan. Esaterako, beldurra, zeloak, asko-nahia... Ipuinak ispilu ederrak baitira eguneroko korapiloak ikusi eta irtenbideak bilatzeko.

Eskerrik asko
Usurbil!



0
sanmarko
zero biktima

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURA

Diamantea, uste baino gogorragoa

GAUZA JAKINA DA diamantearekin kristala edo altzairua moztu daitezkeela. Berriki egindako ikerketa batzuen arabera, konpresio-indar handien aurrean gogortu ere egiten dela jakin izan da. Bi laser erabiliz, diamanteak presio atmosferikoa baino milioi bat handiagoa den presioa jasan dezakeela frogatu da. Aurkikuntzak, diamanteen erabilerak teknologikoan eragina izateaz gain, gure planetaren eta planeta erraldoi gaseosoen barne-izaera hobeto ulertzeko balio dezake.

Stewart McWilliams-ek eta Jon Eggert-ek zuzendutako ikerketa batean, milioi bat eta hamar milioi atmosfera arteko presiopean diamanteak urtzeko nanosegundo bat behar duela ikusteaz gain, urtu aurreko azken uneetan diamanteak izugarritzko indarra duela ere detektatu zuten. Beste ikerketa batean diamantea sei milioi atmosferatan eta 7.700°C-tan urtzen dela ere frogatu zen. Datu horiek arrasto garrantzitsuak eman ditzakete Urano eta Neptuno planetetan, karbono likidoaren gainean, diamante-izebergak flotatzen ari direla uste dutenentzat.



Kairei tximinietako karakolaren oskol harrigarria

INDIAKO OZEANOAN ospetsuak dira Kairei izeneko tximiniak, beraietatik etenik gabe laba igortzen baita. Hortxe aurkitu zuten, 1999. urtean egindako azterketa batean, karakol harrigarria.

Orain karakol horren oskola aztertu dute eta hiru geruza dituela ikusi dute. Barnean oso kaltzifikatua dagoen oskola du; horren gainean izaera organikoa duen geruza dago, baina kanpoaldean burdin sulfurozko geruza gogor eta erresistentea dago. Azken hori da ikerlarien interesa piztu duena, aplikazio teknologikoen eremua izugarri zabal baitezake; besteak beste, edozein ibilgailu motatan eta, nola ez, ibilgailu militarren blindajeetan.



WWW.DIGITALJOURNAL.COM

Berotegi-efektuaren aurka borrokatzeko sistema

Berotegi-efektuaren aurka borrokatzeko, gure gizartearen joera kontsumista aldatzea izango da gako nagusietakoa. Hori gertatu bitartean, zientzialari batzuek proposatu dute ozeano azpiko urak gorantz ponpatzea, karbono dioxido gehiago xurgatzeko.

<http://ttiki.com/11027> (Frantsesez)

Zinemaren arrakastaren ustezko formula

Harrigarria badirudi ere, James Cutting psikologoak, 150 film aztertu ondoren, arrakastaren formula matematikoa asmatu du. Baina balioko al du formula horrek etorkizunean egingo diren filmen arrakasta asmatzeko? <http://ttiki.com/11028> (Frantsesez)

Munduko planktonaren banaketa azaltzen duen mapa

Science aldizkarian itsasoetan dagoen plankton-banaketa azaltzen duten bi ikerketa argitaratu dira orain gutxi. Planktonak, arnasten dugun oxigenoaren zati handi baten sortzailea izateaz gain, nitrogenoa eta karbono dioxidoa xurgatzen ditu atmosferatik. Oraingo ikerketek haren izaera hobeto ulertzeko balio izan dute.

<http://ttiki.com/11029> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia

batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Alimaleko landareak

LANDAREEN tumore edo lupu artean ibili eta gero, gure tumore edo lupuak, "lupuak helduko al dink", sendatze bidean erabiltzeko dugun landare aukera izugarriari heldu nahi diot. Gero eta handiagoa den aukera, egunetik egunera hazten ari den erreskada. Hona familiak: baratxuria, tipula, porrua, txalota eta tipulina, minbiziaren zelulak hiltzeko ahalmena dute. A bitamina eta likopenoa duten baratzki eta fruituak, tomatea, azenarioa, kuiak eta kuitxoak, albertxikoa, kakia eta abar, zelula gaiztoen hazkuntza eragozle. Itxuraz soiak eta te berdeak ere antzeko lana egiten dute. Fruitu gorriak, ai fruitu gorriak! Masusta, gerezia, ahabia, marrubia, mugurdia... azido miragarrien habia. Eta belar eta espeziak, perrexila, erromeroa, albahaka, oreganoa, mendarora, mendafina, ezkaia, kanela, kurkuma, jengibre... hauek sarri dantzatu beharko genituzke, gure plateren zeruetatik gure aho sabaiaetara. Lizar-hostozko koroa merezi dutenak, jakina, azatarrak: aza bera, Brusela aza, brokolia, buru-aza, zuhain-aza, azalorea, arbi-aza, aza gorria, aza kizkurra, romanesku aza, aza txinatarrak... aukera eta merkea botika.

Elyssia Chlorotica, itsas bare berdea. Animalia izanagatik gai da landareek bezala fotosintesia egiteko, hartarako beharra duenean.



REEFBUILDERS.COM



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



FOREST&KIM STARR



HEDWIG STORCH



WWW.AGOOSA.COM

Baratxuria, tomatea, tipula... eta beste hamaika. Landare aukera izugarria dugu minbiziari aurre egiteko. Baratxuriak eta tipulak minbiziaren zelulak hiltzeko ahalmena dute. Tomateak, haien hazkuntza eragoztekoa.

Landareen mundutik urrutira gabe baina kanpoan, perretxikoak ere oso onak dira lupuari hiltzeko lanean, defentsak galanki indartzen baitituzte. Landareak direnak eta ez direnak animalion lupuaren aurka. Landareek beren gisa egiten dutena egiteko, bizi, guk beraiek hil behar ditugu, jateko. Jate honetan gizakiok baino etekin hobea lortzen dutenak badira. *Elyssia chlorotica* molusku edo itsas barea adibidez. Gorbela, algak jaten ditu eta hauen eskasia dagoenerako prest izaten da. Algen kloroplastoak azalean jasotzen ditu, eskasi garaian jakiak sortzeko fotosintesia berak egiteko. Honek berde kolore ederra ematen dio. Soil-soilik landareena zela uste zen sintesi hau egiten zuelako ezaguna egin zen lehen animalia. Behiak edo belarjaleok inoiz berdetuko ote gara?



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiarta 28, beheko solairua, B12 lokala
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Garai guztietako Forbes zerrenda



NEW YORK, 1917. B. C. Forbesek negozioetan eta finantzatan espezializatutako *Forbes* aldizkaria sortu zuen. Ia 70 urte geroago, 1986tik aurrera, urtero munduko pertsonarik aberatsenen zerrenda argitaratzen hasi zen aldizkaria. Eta orain, *Clio* hilabetekariak historiako pertsonarik aberatsenen Forbes zerrenda argitaratu berri du. Hauek dira hamar gizon horiek, emakumerik ez baitago zerrendan:

- Kreso Lidiako errege izan zen K.a. VI. mendean eta garaiko pertsonarik aberatsena zela uste zen, bere urre meategiei esker.
- Augusto enperadorea (K.a. 63-K.o. 14) Erromako hiritar aberatsena zen, Erroma munduko hiririk boteretsuena zen garaian. Bere ondasunei esker, besteak beste, errepublika monarkia bilakatu ahal izan zuen K.a. 27. urtean.
- Jacques Coeur (1395-1456) frantziar merkataria ezagunaren meritua handia izan zen: Erdi Aroan ez zen batere erraza halako ondasunak biltzea burgesa izanik, aberastasunaren pribilegioa nobleziarena baitzen.

Ezkerretik eskuinera, historiako hiru gizonik aberatsenetakoak: Augusto enperadorea, Kosme Medici eta John D. Rockefeller.

- Kosme Medici (1389-1464) finantzari sendi ezaguneko kidea zen. Errenazimentuan Florentzia hiriko buruzagi izan ziren Medicitarrek, baina negozioetan Kosme nabarmendu zen.

- Jacob Fugger (1459-1525) alemaniarra garaiko negozio gizon berritzaileena eta arrakastatsuna izan zen. “Enperadorean bankaria”, “merkatarien printzea” eta beste goitizenez batzuk jarri zitzioten eta Maximiliano I.ak konde titulua eman zion 1514an.

- Mayer Amschel Rothschild-ek (1744-1812) jostundegi xumea zuen Frankfurteko juduen ghettoan. Hil zenean inperio ekonomiko izugarria zuen eta kapitalismoaren paradigma bihurtu zen.

- Alfred Nobel (1833-1896) bere izena dararmaten sariengatik eta dinamita asmatzeagatik da ezaguna. Lehergaien industriari esker munduko pertsonarik dirudunena izan zen, Rockefeller iritsi arte.

- John D. Rockefellerri (1839-1937) esker, Standard Oil munduko petrolio konpainia nagusia bihurtu zen. Egun, haren abizena aberastasunaren sinonimo da oraindik.

- Jean Paul Getty (1892-1976) ezezaguna izan zen luzaroan finantza mundutik kanpo. Hil zenean, haren ondasunak 1.300 milioi dolarretan zenbatu zituzten. Baina bere esku zeuden petrolio erreserbak kontuan hartu izan balituzte, kopurua hamar aldiz biderkatuko zen gutxienez.

- Bill Gates Microsoften jabea munduko pertsonarik aberatsena zen 2009an. 40.000 milioi dolar bildu ditu, besteak beste zorigaiztoko Windows Vistari esker.

Arrastoak

Imperium online eta Sparta II

EDUKI HISTORIKOAK dituzten bi bideojokoren bertsio berriak merkaturatu dira berriki. Bata, *Imperium* lehen *city builder*-aren online bertsioa da (ezkerrean); Zesar Augusto enperadorearen kanpaina militarrek jasotzen ditu jokoak. Besteak, *Sparta II* izenekoak (eskuinean) Alexander Handiaren

konkistak ditu hizpide. Joko honek mazedoniarrek, greziarrek, pertsiarrek eta egiptoarrek bat egin dute. Erasoak, aliantzak, setioak... guztira hemeretzi misio biltzen ditu eta honek ere online jokatzeko aukera ematen du, hau da, beste jokalaririk batzuekin sarean lehitzeko aukera.



Imanol Murua Uria

«Solaskideek elkarrekiko konfiantza handia izan zuten»

Zarautz, 1966. Berriako kazetaria da. Suetena Belfasten eta Palestina zauritua liburuen egilea. Politika arloa landu du bereziki. Euskal gatazka konpontzeko azken saioak hurbiletik ezagutu ditu. *Loiolako Hegiak* liburua kaleratu orduko hitz egin dugu kazetari zaildu honekin.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Halabeharrik eraman zuen Politika sailera, 2000n, eta geroztik kazetari-tzaren eremu horretan jardun du. Aita (Imanol Murua) politikan aritu izanak aukera horretan eragingo ote zuen ez da ziur, ez da kontziente behintzat: “Politika etxean ezagutzeak, agian, alderantzizko eragina izango zuen. Aitaren belaunaldiko-entzat askotan politika esker txarreko jarduna zen-eta”.

Ezer ez da guztiz jakina, ez guztiz egiazkoa ez gezurrezkoa ere. Ez da zeharo txuria ez beltza. Halakoxea da ere euskal gatazkaren gaia. Egiak eta hegiak hurbilekoak dira, errealtatearen ertzak eta mugak dira. *Loiolako hegiak* liburua (Elkarren eta *Berria*-ren koedizioa) lekuko.

***Loiolako hegiak* idazteko hala nola politikaz idazteko, iturriak funtsezkoak dira. Zein da arlo horretan zure esperientzia?**

Politikan hasi nintzenean hori zela erronka konturatu nintzen. Iturri zuzenak behar dituzu, eta sektore ezberdinetakoak izatea hobe. Politikan gertatzen denaren azalekoa baino ez dugu ezagutzea ematen, politikariek eskaini nahi dutena baino ez dugu ematen. Beraz, nik ere iturrien arloa landu dut, landu dugu *Berria*en.

Euskal politikan areago, esango nuke. Jakina. Loiolako elkarrizketara iritsi baino lehen, Jesus Egigurenek eta Arnaldo Otegi Txilarre baserrian



• TERMOMETROA •

eduki zuten harremanen berri ez genuen hiruzpalau urte igaro arte ezagutu. Josu Urrutikoetxea eta Jesus Egiguren Genevan biltzen hasi zirenean kazetaritza politikoa genbiltzanok ezin genuen imajinatu gertatzen ari zena.

Sukaldeko lana delakoa alegia. Uneon ziur zerbait ari dela egosten...

Bai. Adibidez, ezker abertzalearen *Zutik Euskal Herria* agiria lerro artean irakurri behar da. Testuinguruan gertatzen ari denari lotuta konklusio batzuk atera ditzakegu, baina benetan gertatzen ari dena ez dakizu. Politikariak publikoki adierazten dutena dakigu, beste arlotan ere gertatzen da, baina politikan areago. Gertatzen ari dena ezagutzeko iturri zuzena ezinbestekoa da.

Zuk izan al dituzu iturri horiek?

Neurri batean. Urratu beharreko bide bat da. Noski, dependentzia ere sor diezazuke. Politikariak informazioa ematen badizu, konplizitatea bilatzen du. Politikariak bere sekretuak kontatzen dizkizu, argitaratu ezin dituzunak, zure lanerako lagungarriak, baina aldi berean distantzia markatu behar duzu, bere agindueta ez erortzeko. Ondorioz, iturrieta-ri iristen bazara, ezinezkoa da guztiekin erabateko konplizitatea izatea. Bi edo hiru aldeekin iturri zuzenak badituzu, ezin duzu eskusiba zuri ematea espero.

Loiolako hegiak liburuan, Loiolako elkarrizketen—hiru alderdien hitzak—nondik norakoak azaldu dituzu, horiek prozesu osoaren parte bat izaki.

Loiolako negoziazioetan hiru egia daude gutxienez. Hiru egia horiek kontatu nahi izan ditut, baina ez hori bakarrik. Liburuan badaude ere negoziazioaren ertzak edo hegiak. Mugak edo marra gorriak.

Konponbidearen hegira iritsi al zen Loiolan?

Jakina da hiru aldeek behin-behineko akordioa lortu zutela, baina gero ez zutela berretsi. Nik hiru aldeek bertsioak kontrastatu eta baieztatu ditut. Hiruek onartzen dute akordioaren zirriborro batera iritsi zire-

“PSOEk edota Estatuak nola jokatu zuten ikusita, ez fidatzeko arrazoiak izango zituzten ezker abertzalean. Hauek hartara, bukaerakoa itxi nahi izan zuten eta horrek irtenbiderik gabe utzi zuten negoziazioa”.

la. Geroago, ordea, bakoitzak akordua bere etxean berretsi behar izan zuenean egoera aldatu zen. Gatazka armatua konponbidean jartzen zuen konpromiso baten hegiraino iritsi ziren, baina gatazka politikoa osorik hartuta, ez dut uste berau konpon dezakeen punturaino iritsi zirenik. Zirriborro harekin gatazka nekez konponduko zen, baina gatazkaren alde mingarriena konponbidean jar zezakeen bide bat ireki zela bai.

Zenbat dago egiatik Loiolan akordatu zuten zirriborroan?

Mahaian eseri zirenek kontatu didatenari erreparatuz gero —eta euren kontakizuna zintzoa dela iruditu zait—, negoziaketa leiala izan zen, hartu zituzten konpromisoak betetzeko prest zeuden negoziazioan zuzenean parte hartu zutenek.

“Loiolan sinatu zena Estatuako agintariak beteko ote zuten Jesus Egigurenek berak zalantzan jartzen du liburuan”

Baina han zeudenek euren mugimendu eta antolakunde politikoak ordezkatzeko zituzten, PSE-EEren kasuan Estatuako aparatu osoa. Besterik da, beraiek ordezkatzeko zuten aldeek euren akordioa beteko zuten edo ez. Gerora ikusi zenez, hori ez zegoen horren garbi. Sinatu zena Estatuako agintariak beteko ote zuten Egigurenek berak zalantzan jartzen du liburuan. Otegi Loiolako mahaian defendatu zuena, gero, ezker abertzaleko erabakiguneetan aldatu egin zuten.



Loiolako saioak huts egin arren, gatazkaren irtenbiderako oinarriak bertan finkatu zirela dio jende askok. Hala uste dut nik ere. Mahaian negoziatu ziren gaiak gatazkaren oinarrian daude: erabaki subjektua zein den eta subjektu horrek erabaki eskubidea nola gauzatu dezakeen. Nola abiatu egungo egitura administratibotik eta politikotik, geroago erabaki eskubidea onartuko lukeen markora ailegatzeko. Hori guztia nola ezkondu legaltasunarekin. Subjektu politikoaren aitorpenean eta erabaki eskubide gauzatzeko irizpidean asko aurreratu zuten. Gai horiek asko findu zituzten. Hor dago gatazka politikoaren funtsa: ba al dago hemen proiektu politiko guztiak gauzatzeko biderik? Independentistek gehiengo lortuz gero, ba al dago modurik berau gauzatzeko? Galdera horiei erantzuten saiatu ziren.

Goiko errailak—Espainiako Gobernua- ren eta ETaren artekoak— aurrera egi- ten ez zuenez, behekoak egin behar izan zuten. Hala hasi zen Loiolako saioa. Egigurenek eta Otegi aurretik Txilaren izan zituzten solasaldiak berebizi-koak izan ziren Loiolakoa hasteko.

Hori da. Loiolakoa hasi zen prozesua ez zihoalako. Loiolakoa hasi zen bi politikari horien artean konfiantza politikoa lortu zutelako. Egigurenek ulertu zuen —Otegiaren bitartez— ezker abertzalea noraino iritsi zitekeen, eta Otegi Estatu —Egigurenen bitartez— noraino iritsi zitekeen. Loiolakoa iritsi zenerako, Otegi eta Egigurenek asko hitz egin zuten, paper eta gidoi batzuk trukatu zituzten, EAJri ordurako helarazi zizkietenak. Loiolan eseri zirenerako lan handia aurreratuta eta konpartituta zegoen.



Otegi, Urkullu eta Eigurenekin egin-dako elkarriketek osatzen dute liburuaren enborra edo ardatza.

Hiruren ahotsak azaltzen dira, baina prozesuan aritutako beste batzuekin ere egon nintzen. Horien azalpenak ez dira modu esplizituan agertzen, baina emandako informazioa baliatu dut. Urkullu orain EBBko presidentea denez, nahiago izan dut EAJren bertsioa berak kontatzea. Baina Josu Jon Imazekin eta Rufi Etxeberriarekin ere egon naiz, besteak beste. Harreman politiko handia lortu zuten. Hori nabaritu dut, bereziki aurkari politikoei buruz hitz egiten dutenean. Prozesuak bukaera gogorra eduki zuen, baina, gertatuak gertatu, solaskideek elkarrekiko konfiantza izan zuten.

Nolakoa izan da euren jarrera?

Eiguren, Loiolan gauzak nola gertatu ziren garbi uzteko gogoz, baina Loiolatik aurrerako ahaleginei buruzkoak kontatzeko uzkur. Barajasko atentatuaren ondoren egin zituzten ahalegin guztiei garrantzia kenduz. Barajasen ondoren ez zutela ezer negoziatu garbi adierazi nahi izan du. Otegi berriz, Loiolan hartu zituzten erabakien zergatiak azaltzeko gogoz, egin zutenaren arrazoiak argitu nahian, ikuspuntu autokritikoarekin hitz eginez. Urkulluk, aldiz, prozesu osoa hartuta, ez dauka besteek daukaten ezagutza. Prozesuaren jatorriaz eta bukaeraz ez dauka ezagutza horren sakona. Loiolakoz bai. Loiolakoz buruz bere alderdiak zuzen-zuzen jokatu zuen uste osoarekin mintzatu zait. Alderdiaren jokabidearen defentsa egin du, den-dena kontatuz. Berak ez du ikusten bere alderdiak gehiago egin zezakeenik. EAJ bitartekari

lanetan aritu zen eta harro dago rol hori jokatu izanaz.

Hori da Batasunak EAJri leporatu izan diona. Alderdi abertzalea den aldetik laguntzaile ibili beharrean, bitartekari lanetan aritu zela soilik.

Urkulluk ez du ezkututzen momentu batzuetan bitartekari aritu zirela. Kontua da, Otegiren ustez, EAJ hurbilago izan zela PSOEn jarraitik ezker abertzalearengandik baino. Eta egia da, prozesua osotasunean hartuta, EAJk babes osoa eman ziola, baldintzarik gabea, Zapateroren gobernuari.

Pasadizo batzuek ederki ilustratzen dute aldean arteko ezagutza. Esaterako, Rodolfo Aresek Elizondo ez dakiela non dagoen agertzen duen pasarte.

Ares ez zen prozesu hasieratik izan, Eiguren bezala. Loiolarak “Eiguren zelatatzera” joan zela ematen du. Ares PSOeko Batzorde Federalesko kidea zen, konfiantzazko gizona Madrilan: “Jakín dezagun zertaz ari diren” pentsatuko zuten eta Eigurenen ondoan jarri zuten nolabait. Aresek beste rol bat jokatu zuen. Telefonoz hitz egiten denbora asko eman zuen. Eigurenek kontatzen duenez ‘Euskal Herriak nazio izaera duen edo ez’ zuten ezbaian eta negoziatzia trabatu zen. PSOEk ez zuen puntu hori onartu nahi eta Eigurenek dio: “Bai, onartzen dugu, aurrera”. Gero xextran aritu zen Aresekin. Otegi dioenez, eurak harrituta geratzen ziren bien artean zeuzkaten eztabaidekin.

Zirriborroa idatzita, akordioaren hegian zeudela, Batasunak testu alternatiboa aurkeztu zuen.

Prozesuaren une klabea da, horrela agertzen da liburuan. Akordio serio batera iritsi ziren, behin-behineko akordioa, ez akordio itxia noski, ez behin betirakoa, baina garrantzitsua. Hamar egunera Batasunaren ordezkariak aldaketa garrantzitsu batzuk proposatu zituen eta adostasuna hautsi zen. Niri ez didate dena kontatu noski, eta solaskide bakoitzak neurrian kontatzen ditu gertatu zirenak. Nik atera dudak konklusioa ez da haiek kontatu didatenetik, iradoki didatenetik baino. Galdera da: zer gertatu zen ezker abertzalearen erabakigunetan? Urkulluk eta Eigurenek diote euren jarrera ETAk aldarazi zuela. Otegi ezetz dio. Behin-behineko akordioa ezker abertzalean aztertu zela. Prozesu osoarekiko mesfidantza handia zenez, azken eszenatoki izango zena zehaztea pentsatu zutela, akordio sendoa izatea komeni zela erabaki zutela. Beste aldeak benetan konprometitzen ziren bermatu nahi zutela. Zeinek erabaki zuen aldaketa? Nik ez dut zehatz jakiterik izan. Nire konklusioa hau da: Batasuneko negoziatzaileak ados zeuden akordio zirriborroarekin, baina ezker abertzaleko erabakigunetan ez zuten berrestea lortu.

Eigurenek “hasi aurretik erabakia zela aldaketa hori” esan izan du.

Eigurenek dio, Otegi eta Rufik ez zutela ezker abertzalean aginpidetik eta beste batzuek aspalditik erabaki zutela prozesua gelditzea. Hori erabaki zutenetik ez zela zer eginik izan. Nire ustez bazegoen zer eginik. Azken unera arte ahalegina egin zen berriro prozesua bideratzeko. Suitzako azken ahaleginak hori erakutsi zuen. Eigurenen konklusioa hori da. Agian,

Suetena Belfasten, Palestina zauritua eta Loiolako hegialak
“Gurean ere gatazka armatua gainditu daiteke”

IRLANDAKO GATAZKA: Egon nintzenezan egoera oso korapilatsua zen. Harremanak bi aldeekin landu nituen, baina harreman handiena errepublikar jendearekin egin nuen, 1995ean oso pesimistak ziren bi aldeak, egoera oso gogorra zen. Hango gatazka konpontzeko lotu beharreko hariak, hemengoak baino askoz konplikatuagoak zirela ikusten genuen guk, baita irlandarrek beraiek ere.

PALESTINA-ISRAEL GATAZKA: Osloko akordioak sinatu berriak ziren liburua idatzi nuen garaian, autonomia hasi berria. Yasser Arafat gobernu autonomoaren buru izendatu berria zen. Inongo gatazka zailena konponbidean jartzen ari zirela ematen zuen. Gero ikusi denez, okerrera egin du. Kontziente ziren oso zaila zela. Batzuek zioten Jerusalemeko auzia konpontzeko modu bakarra hiria suntsitzea eta berria egitea zela. Halako ezintasunak halako “txantxak” eragiten ditu. Hala ere, nazioarteko behatzaile edo bitartekari batek

behinola haxe esan zidan: “Ez esan nik esan dudala, baina munduan konponbiderik ez daukan auzi bakarra Ekialde Hurbilekoa da. Zuen, euskaldunena, horren aldean askoz errazagoa da”.

IKASPENAK: Irlandan ikasi nuen errealtatea ezin dela ikuspegi bakar batetik kontatu. Falls eta Shankill kaleak paralelo daude, eta garai hartan hesi batek bereizten zituen. Oso arriskutsua zen alde batetik bestera ibiltzea. Batera eta bestera joan, eta alde bakoitzak bere egiak kontatzen zituen, eta bienak ziren kontuan hartzekoak. Ez zenuen sentitzen inork gezurra kontatzen zuenik, bakoitzak bere errealtatea bizitzen zuela baizik.

Palestina eta Israelen arteko gatazka besterik da. Alde bat eskubiderik gabe bizi da, zanpatua. Israelek nazioarteko babes handia dauka, militarki izugarri prestatuta dago. Bi errealtateak zuria eta beltza ziren. Irlandan, aldiz, bi aldeak grisak ziren. Gurean ere gatazka gainditu daitekeela ikasi dut.

berak kontatzen ez dituen arrazoiak ditu.

Aurrez aldetik pentsa zitekeen baino aurrerago joan zirela esango nuke nik. PSNren inplikazioa Nafarroako auzian azpimarragarria da.

PSNk prozesuan ez zuen parte hartu, baina Loiolako behin-behineko akordioan, oinarri politikoez gain, egutegia eta metodologia ondo zehaztu zituzten: Eusko Ikaskuntzak Konferentzia politikoa gidatuko zuela zioen akordioko egutegiak. Konferentzia politikotik alderdiaren mahaira nola igaro zehazten zuen; eta tarte horretan PSN inplikatzeko modua aipatzen zen. Finean, Madrilke esango zion PSNri zer egin. Egigurenak ez zuen zalantzan jartzen; unea iritsita PSN sartuko zen Konferentzia politikoa eta alderdien mahaian.

Gerry Adamsek “negoziaziorik zailena etxe barruan egin beharrekoa dela” esaten du.

Bai. Arestian esan dudanez, hori horrela da. Otegirena aipatu dut. Egigurenak ere, akordioak aurrera egin izan balu, zeregin zaila izango zuen etxe barruan. Bitarte horretan irudi du nahiko libre jokatu zuela. baina prozesuak aurrera egin izan balu, Loiolan hitzartutakoa Madrilke errespetatzea lortuko zuen?

Alec Reid-ek “prozesuaren bukaera ezin da prozesuaren hasieran hitzartu” esana duela uste dut.

Bai. Irlandan aldeek ondorio hori ateratu zuten: bukaera ezin da hasieratik hitzartu. Konpromisoak azken ereduaren izango den ziurtatua izan gabe hartu behar direla, alegia. Prozesuko arazoetako bat hori izango zen agian, bukaerakoa itxi nahi

“Urkulluk ez du uste bere alderdiak gehiago egin zezakeenik. EAJ bitartekari lanetan aritu zen eta harro dago rol hori jokatu izanaz”

izatea [ezker abertzalearen kasuan]. Baina prozesua nola joan zen ikusita ulargarria da. PSOEek edota Estatuak nola jokatu zuten ez fidatzeko arrazoiak izango zituzten. Bukaerakoa itxi nahi izan zuten eta horrek irtenbiderik gabe utzi zuen negoziazioa.

Zein da zure ondorioa?

Gatazka politikoa behin betirako eta sinadura baten bitartez konpondu nahi izatea, konpontzeko aukera bakartzat hori hartzea, porroterako bidea da. Lehenik ate batzuk ireki

behar dira. Egigurenak “*Lo nuestro no tiene una solución, tiene un arreglo*” esan ohi du. Noski, hori sakoneko ezer aldatzeko justifikazio bezala ere ulertu dezakezu. Gatazka politikoa konponbidean jartzeko sakoneko gauza asko aldatu behar dira, hasteko joko arauak aldatu behar dira, baina den-dena ez da sekula akordio bakar baten bidez konponduko.

Zer iritzi duzu ezker abertzalearen Zutik Euskal Herria adierazpenaz?

Orain gertatzen ari denak lotura zuzena du Loiolan gertatu zenarekin. Loiolako hainbat gauzekiko ikuspegi kritikoa ageri da testuan. Adierazpenaren garrantzia begi-bistakoa da Batasunak gidaritza hartu duelako, ezker abertzale politikoa- ren zuzendaritzak ezker abertzalearen militantziaren babesa jaso duelako. Norabidea ez dago ETAk egingo duenak markatuta, ez orain arte bezala behintzat, eta erabakia unilaterala da. Agiria ez dago beste batzuek hartu ditzaketan jarre- rek baldintzatuta. Batzuek agiria erlatibizatu dute, baina bi faktore horiek ez dira egundo eman. ■

argia.com Imanol Murua Uria
 kazetariarekin egindako bideoa gure webgunean ikusgai dago.

Juan Carlos Moreno Cabrera

«Hizkuntzalaritzak lagundu dit aurreiritziak gainditzen»

Moreno Cabrera (Madril, 1956) Filosofia eta Letretan doktorea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Hizkuntzalaritza Orokorreko katedraduna da. Soziolinguistika Klusterraren Jardunaldian bertan egin genion elkarrizketa eta hitzaldian bezala, euskaraz aritu zen.

ONINTZA IRURETA

Argazkiak: Soziolinguistika Klusterra



Madrildarra zara eta zeuk aitortu izan duzu aurreiritziak izan dituzula hizkuntzekiko.

Orain ezin ditut aurreiritzi guztiak aipatu, zerrenda luzea baita, baina aipa ditzaket batzuk. Hizkuntza batzuk beste batzuk baino zailagoak edo errazagoak dira. Adibidez, ingelesa baino txinera zailagoa da.

Beste bat: idatzizko hizkuntzak ahozko hizkuntzak baino aurreratuagoak dira. Ahozko hizkuntza dagokion idatzizko hizkuntzaren agerpen akatsduna da. Hizkuntzak dialektotan zatituta daude. Duela urte asko, ikasle nintzenean, irakasleak esan zidan andaluziera espainieraren dialektoa zela, baina

“Aitu batzuek ondokoa esan dute: ingelesa edo gaztelania munduan hedatuta daude hizkuntza errazak edo homogeneoak direlako. Hizkuntzalariok badakigu hori ez dela egia”.

Soziolinguistika Klusterraren III. Jardunaldia

Hizkuntzekiko aurreiritziak, jarre-
rak eta jokaerak. Kontzeptu
horiek, edo antzekoak, eguneko
izarrak izan ziren otsailaren 26ko
jardunaldian. Zein aurrejuzgu ditu
euskal hiztunak? Eta erdal hitzu-
nak? Zergatik eleantitasunaren
alde egiten du hainbat elebaka-
rrek eta hizkuntza bat baino ez
dakite? Zergatik euskal hiztunok
ez dugu beti euskaraz egiten?
Galdera asko mahaigaineratu
ziren, erantzunak ez hainbeste,
itaun horiek ez baitira ahuntzaren
gaurdiko eztula.

Jarreretatik erabilerarako pau-
soa nola ematen den azaldu

nahian ibili ziren Erramun Baxok
(Euskararen Erakunde Publikoa),
Iñaki Martínez de Luna (EHU) eta
Pablo Sotés (NUP) mahai-ingu-
ruan. Ondoren, bi ikerketa iturbu-
ru hartu eta bi tailer egin ziren
Donostiako Zientzia Kutxagu-
nean elkartutako ehundik gora
lagunekin. Lehenengo tailerrak
Hizkuntza-ohituren aldagetak:
gako teorikoetatik egoera errea-
letara zuen izenburu eta bigarre-
nak *Gazteen erabileraren korapi-*
loa begi-bistan.

Arratsaldean Esti Amorrortuk
(Deustuko Unibertsitatea) *Erdal-*
dunen euskararekiko aurreiritziak

eta jarrerak izeneko lana hartu
zuen oinarri eta erdaldunen uste,
inpresio eta sentsazioetariko
batzuk azaleratzen saiatu zen.

Soziolinguistika Klusterreko
kideek bestalde, jardunaldia bali-
tu zuten 2009ko Hausnartu Sariak
banatzeko. Lehen saria lortu zuen
Dabid Anautek *Argiak eta itzalak*
euskararen lurraldean. *Euskararen*
etxean, gazi-gozo lanarekin. Ira-
bazleak Leitza, bere herrian, oina-
rritutako lana aurkezteko aukera
izan zuen Zientzia Kutxagunean.
Bigarren saria jaso zuen Jose Mari
Zendoiak eta hirugarrena Urtzi
Barrenetxeak.

orain badakit horrek ez duela zen-
tzurik. Euskararen kasuan, adibi-
dez, oso argi dago bizkaiera edo
gipuzkera ez direla euskara batua-
ren dialektoak. Euskara batua eus-
kalkietan oinarrituta dago, ez alde-
rantziz. Hizkuntzalari guztiek hori
badakite edo jakin beharko lukete.

Nola gaintitu dituzu aurreiritzi horiek Madrildik begiratuta?

Hizkuntzalariek hizkuntzak zien-
tifikoki ikertu behar dituzte.
Gaurko hizkuntzalaritzaren aurki-
kuntza guztiak bateraezinak dira
aipatu ditudan hizkuntzekiko
aurreiritziekin. Benetako hizkun-
tzalari izan nahi badut, derrigo-
rrez hizkuntzei buruzko aurreiri-
tzien aurka borrokatu behar dut.
Horregatik, nire kasuan, erraza da
aurreiritziak gaintitzea. Hizkun-
tzalaritzak lagundu dit edo lagun-
du digu aurreiritziak gaintitzen.

Euskaltzalea

“Alaitzen naiz euskaldunek
euskaraz egiten dutenean. Nik uste
dut euskara eta gaztelania
baliokideak direla. Euskaltzalea
naiz, euskal kultura maite dut.
Gainera, Euskal Herriarentzat
autodeterminazio eskubidea
onartzearen aldekoa naiz”.

Lankide batzuek ez dituztela gainti-
tu esan izan duzu. Zergatik ez dituz-
te gaintitu?

Kontuan hartu behar dugu zien-
tzialariak gizartean bizi direla eta
ideologia bat daukatela. Tamalez,
sarritan, kontzeptu zientifikoak
erabiltzen dituzte ideologia susta-
tzeko. Ekonomiaren kasuan oso
garbi dago. Aditu batzuek ekono-
miaren kontzeptuak erabiltzen
dituzte kapitalismoaren ideologia
sustatzeko, eta kapitalismo inperia-
lista onartzeko eta justifikatzeko.
Hizkuntzalaritzan ere bai. Adibi-
dez, adituek hizkuntzalaritzaren
kontzeptuak erabiltzen dituzte hiz-
kuntza inperialismoa sustatzeko eta

justifikatzeko. Batzuek, adibidez,
ondokoa esan dute: ingelesa edo
gaztelania munduan hedatuta
daude hizkuntza errazak edo
homogeneoak direlako. Hizkuntza-
lariok badakigu hori ez dela egia.
Ingelesa eta gaztelania leku askotan
inposatu egin dituzte. Hori dela-eta
hizkuntza horiek ehun milioi hiz-
tun baino gehiago dituzte. Zien-
tzialariak zergatik daude ideologi-
zatuta? Gizaki arruntak direlako. Ni
gizaki arrunta naiz eta badaukat
nire ideologia eta ez dit ardura esa-
teak marxista naizela.

Zuk zenituen aurreiritziak pareka
daitezke katedradun ez den madril-



**"Madrilen espainiar
hizkuntza nazionalismoa
nagusitu da. Horrek esan
nahi du gaztelania
sustatzeko neurriak beti
ontzat jotzen dituztela eta
galiziera, euskara eta
katalana sustatzekoak beti
inposaketatzat"**

darraren aurrejuzguekin? Nola ikusten gaituzte euskaldunak, katalanak eta galiziarak?

Madrilen espainiar hizkuntza nazionalismoa nagusitu da. Horrek esan nahi du gaztelania sustatzeko neurriak beti ontzat jotzen dituztela eta galiziera, euskara eta katalana sustatzekoak beti imposaketatzat. Dirudienez, Madrilen askok sinesten du Espainiako Estatuan gaztelania arriskuan dagoela, baina hori zentzugabekeria handia da. Alderantziz, esan daiteke galiziera, katalana eta euskara gaztelaniaren menpean daudela Espainian, eta batik bat Galizian, Euskal Herrian eta Katalunian.

Madrildik Euskal Herrira etorrita. Euskal hitzunon aurreiritziak aipatzerakoan hizkuntza estandarren eta euskalki eta hizkeren orekaz hitz egin izan duzu.

Aurreiritziak oso hedatuta daude mendebaldeko gizarteetan. Beharrezkoa da aurreiritzi horiek eskolatik ezabatzea. Hizkuntza estandarri dagokionez, beharrezkoa da gure gaurko gizartearen, eta dudarik gabe, Euskal Herrian ere bai. Baina horrek ez du esan nahi euskalkiak edo gure hizkerak gutxietsi behar ditugunik. Alde-

Elebitasun pasiboaren aldarria

Moreno Cabrera hizkuntzalariak, elkarrizketaz gain eskaini zuen hitzaldian, elebitasun pasiboaren alde egin zuen. Han elkartutako batek baino gehiagok, hitzaldiaren ondoren, adierazi zion madrildarrari elebitasun pasiboa defendatzearen kezka.

Moreno Cabrerak hitz hauek esan zituen elebitasun pasiboaz: "Elebitasun partziala edo oreka gabea dago kasu askotan: hizkuntza batean bestean baino gaitasun gehiago izango dute elebidun askok. Oso interesgarria da 'erdielebitasun ulerkorra' edo elebitasun pasiboa kontuan hartzea, soziolinguistikaren ikuspuntutik. Honela uler liteke erdielebitasun ulerkorra: hizkuntza batean hitz egitea eta ulertzea eta beste hizkuntza batean ulertzea, baina ez hitz egitea. Hala ere, elebitasun pasiboa mespretxatuta dago gure gizartearen. Nire ustez, erdielebitasun ulerkorra ez da nahitaez elebitasunaren porrota. Elebitasun pasiboa garrantzitsua izan liteke, eleaniztasuna sustatzeko eta bermatzeko. Euskal Herriaren kasuan, heritar guztiek euskaraz ulertu behintzat egin behar dute. Horrela, euskara esparru guztietan erabili ahal izango da Euskal Herrian".

rantziz, euskara bizia da, hizkerak eta euskalkiak baitaude. Irlandan badago eskoletan irakasten duten irlandera estandarra, baina ia ez dago irlandar hizkerarik eta dialektorik. Hori dela-eta irlandera hiltorian dago. Aurreiritzi hori eza-batzeko gizartearen pentsamoldea aldatu behar dugu eta hori oso-oso zaila da.

Aurreiritziak, jarrerak eta jokaerak kontuan hartuta aurreiritziak direla aldatzen zailenak esan izan duzu.

Alkandora aldatzea oso erraza da, baina mentalitatea ezin dugu aldatu egun batetik bestera. Hezkuntza oso garrantzitsua da helburu hori lortzeko.

Eta nola eragiten dute aurreiritzi horiek jarreretan eta jokaeretan?

Aurreiritzi horiek hizkuntzarekiko jarrera eta jokaera txarrak eragiten dituzte eta elkarbizitza eragozten dute seriooki.

Etorri zait gurasoa eta esan dit berak haurra A ereduan matrikulatu

nahi duela eta ez diotela aukerarik ematen. Administrazioan leihatilakoari esan diot euskaldunarekin hitz egin nahi dudala eta sekulako aspertu aurpegia jarri dit. Uste dut arrazoiak dudala baina ez dakit nola defendatu nire burua, ez dakit nola konbentzitu bestea.

Ulertzen dut zure egoera. Adibide argigarria da. Euskara hizkuntza ofiziala da Euskadin eta hitzaldian esan dudana bezala, kontuan hartu behar dugu ofizialtasuna ez dela Madrildik datorren inposaketa, Euskal Herriko erabaki demokratikoa baizik. Beraz, euskal hiritar guztiek euskaraz ulertu behintzat egin behar dute. Leihatilakoek ere bai. ■

argia.com • Esti Amorrorturi egindako elkarrizketa *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* ikerketaz: argia.com/argia-astekaria/2207
• Baxok-Martinez de Luna-Sotés mahai-inguruaz kronika: argia.com/erredakzio-mahaia/onintza-irureta

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

**gure
artean!
euskaraz**



**BFA
DFB**

Eskualdeetako bozak aro politiko berriaren iragarle

Aurtengo martxoa mugarria izan daiteke Ipar Euskal Herriaren bilakabidean. Frantziako eskualdeetako bozek iraganaren eta geroaren marra trazatu dezakete. Batera plataformak antolatutako herri galdeketa, berriz, marra horren seinale gorria litzateke.

MIKEL ASURMENDI

IPAR EUSKAL HERRIKO politikagintza gori-gori dago. Frantziako eskualdeetako bozak dira hil honetako 14an eta 21ean. Euskal herritarrek Akitaniako Kontseilurako kargu berriak hautatuko dituzte. Alta bada, ez da boz emate bakarra izanen. Batera plataformak herri galdeketa egingen du 14an.

Herri kontsultaren berezitasunaz beste, boz hauek hiru bereizgarri hauek dakartzate. Bat: sei urteko legealdia izaten zena, 2014an bukatuko da. Legealdi berri horretan, Frantziako agintariak prestatzen ari diren instituzioen erreformak tokiko kontseiluen birmoldaketak ekarriko ditu. Uneon inork ez daki zehatz-mehatz zer bilakatuko diren Erregioko eta Departamenduko Kontseilu Nagusiak. Departamenduko Kontseilua, dirudienez, desagertzeko zorian dago. Bi: Akitaniako hauteskundeak LGVren (Abiadura Handiko Trenbidea) aferak baldintzatuta daude. LGVren aurkako CADE herri plataformak proiektuaren aldeko alderdiei bozik ez ematea eskatu du publikoki. Hiru: EH Baik, abertzaleen koalizioak, ez ditu hautagaiak aurkeztu. Aitzitik, hauteskundeak protestarako ekimen gisa probestu nahi ditu. Nahi duten herritarrek boto-paper balio gabea erabili ahal izanen dute.

Akitaniako Kontseilua helburu

Akitaniako Kontseiluaren presidentea PSko Alain Rousset da (Parti Socialiste). Bera da kargua betetzeko faboritua. Hauek dira, hurrenez hurren, haren aukari nagusiak: Xavier Darcos (Majorité présidentielle); Nikolas Sarkozy lideratzen duen UMP eskuindarraren aukera. Jean Lassalle (MoDem), zentristen hau-

Jean Tellechea (Nationalistes basques-Euskadi European) eta Jacques Colombier (FN) dira gainerakoak. Bigarren multzoan ezker muturretik eskuin muturrera bitarteko ideologiak ordezkaturik daude. Philippe Poutou hautagai duen Alderdi Antikapitalista Berria (NPA) azpimarratu daiteke euren artean, Olivier Besancenotek lideratua. Aipagarria da ere EAJ-PNBk Urruñako hautesi Jean Tellechea buru duen hautagaitza.

Rousset faboritua, baina

Pirinio Atlantiarak Departamenduko Kontseiluko presidentzia (Paue) zentro-eskuinaren esku bada, Eskualdeko (Bordeleko Akitania Erregioko) Kontseilua PSk zuzendua izan da azken bi legealdietan. Gobernatze-ko alabaina, berdeen eta ezker moderatuen beste aliantzak izan ditu PSk. PS eta Alain Rousset orobat, trenbide azpiegituraren aldekoak dira. Akitaniako Kontseilu Nagusiak, Alain Rousseten agintepean, autobideen alde baino burdinbideen proiektuen alde egin izan du. LGVren azpiegiturak, ordea, eztabaida eta aurkari asko jalgiazi ditu. Kontseilu Nagusian aliatu nagusi izan duen Europe Ecologie LGVren aurkakoa da. Orain galdera da: nola hartuko dute hautesleek LGVren proiektuari buruzko PSren jarrera? Bi itzuliko hauteskundeetan aliantzek munta handia dute



Alain Rousset Akitaniako Kontseiluaren presidentea.

gaitza. Monique De Marco (Akitania-Europe Ecologie). Europako Parlamenturako bozetan arrakasta handia lortu zuen berdeen inguruko indarra.

Nelly Malaty (LO), Philippe Poutou (NPA), Gérard Boulanger (FG-M'PEP), Michel Chrétien (AEI)

HERRI GALDEKETA BATERA PLATAFORMAREN ESKUTIK

1. BATERA plataformak mobilizazio handiak burutu ditu azken hamarkadan. 12.000 herritar manifestatu ziren lehen aldikoz 1999an. 2005ean, Ipar Euskal Herriko auzapezen %64a herri galdeketa alde agertu zen.

2. PIRINIO ATLANTIKO 36.000 biztanleek Ipar Euskal Herriaren etorkizunaz kontsultatuak izatea eskatu dute azken urteotan. 32.000 euskal herritarrek dira. Ipar Euskal Herriko hautesleen %10a. Gaur egun 131 auzapezek bat egin dute herri galdeketa alde.

3. ESTATUKO agintariek ez dute erantzunik eman.

4. HERRI GALDEKETA mobilizazio molde berria izatea nahi du Batak. Ez du balio legalik, baina demokraziaren ari-
ketarako bai. Antolatzaileen hitzetan galdeketa eskaki-
zun politikoa eta sinbolikoa indartuko ditu.

5. HAUTESLEAK 206.921 dira. Herrien %66 inguru. 100 herri inguruko 138.000 herritarrek aukera izanen dute galdera honi erantzuteko: "Euskal Lurralde elkargo baten sortzearen alde zirea? Bai edo Ez?"

6. 100 HERRI horietan 200 bozka bulego zabalik izanen dira. 900 lagun ariko dira galdeketa antolamendua bermatzeko.

7. HERRI GALDEKETAK Ipar nahiz Hego Euskal Herriko sektore zabalak sustatzen ari diren jarduerak dira. AHTr buruzko galdeketa horietako bat da. Hegoaldeko eta Iparraldeko herri batzuetan egin da jada.

8. EUSKAL LURRALDE ELKARGOARI buruzko galdeketa orain arte egindako ekimen zabalena izan daiteke. Batera sustatzen duten sektore anitzek eta zabalek egina.

bigarren hautaketan. Zein izanen da Europe Ecologie-ren jarrera bigarren itzulian, PSrekiko balizko aliantza batean?

Bistan da, aliantzak lehen itzuliko emaitzen menpe izaten dira. Alabaina, batek zein besteak asko dute jokoan: PSk Kontseilu Nagusiaren boterea. Europe Ecologiek, berri-
aldarrikatzen duen alternatibaren sinesgarritasuna. Zentro-eskuinak (MoDem eta UMP), ohi bezala, kanpainen aurkariak izanen dira, baina bigarren itzulian aliatu izaten ahaleginduko dira. Bigarren itzulian, bazterreko alderdien jarrerek ebatziko dute Kontseiluko Gobernu berria. Alderdiek eta, batez ere, hautesleek berek.

Bozen asmoek buruzko inkestek emaitza hauek eman dizkie alderdi nagusiei: PSko Alain Rousseti %31. UMPko Xavier Darcosi %24. MoDemeko Jean Lassalleri %12. Monique De Marcori %11. Inkesta

horrek MoDem-i (UDF iraganen) iragarri die boz galera handiena. Inkesta bat baino ez da.

Akitaniako hauteskundeak hizpi-
de hartu ditugu, alabaina, bozak Estatuko erregio guztietan izanen dira. Île-de-France eskualdeko emaitza frantziar politikaren termometroa izanen da. Estatu mailako eskuinaren alternatiba izan nahi duten ezkerreko indarrentzako test nagusia.

EH Bai koalizioa eta abertzaleak

Ipar Euskal Herriko lau alderdi abertzaleen (AB, Batasuna, EA eta EAJ-PNB) inguruan anabasa gisako bat dago hauteskundeetan. Egoera ulertzeko ez da zaila halere. EAJ-PNBk, tradizioari eutsiz, bakarka ekin die bozei. Iraganen ez bezala, beste eskualdeetako sektore demokristauekin aliantza joan gabe. Gaur gaurkoz, irudiz, gainerako indar abertzaleekin aliantza joateko baldintzak ez direlakoan. EAre kasua bitxia da.

Europe Ecologie-
ren zerrendan aurkeztzen da. Alta, EH Bai sostengatzen du. Jarrera hau iraganeko hauteskundeetan egindako aliantzarekiko koherentzia hartu du EAK.

ABk eta Batasunak osatutako EH Bai koalizioak hauteskunde sistema eta frantziar agintarien politika salatu nahi ditu eskualdeetako boz hauen bitartez. Heldu den urteko Kantona-
menduko bozetarako bidea lantzen eta prestatzen ari da orain. EAKo nahiz gainerako abertzaleekin aliantzak sendotu eta hautetsi kopurua handiagotzea xede du EH Baik. Era berean, koalizioak abertzaleen arteko harremanak sendotu nahi ditu Euskal Herri osoan aurreikusten den aro politiko berria antolatzeko. Ezkerreko abertzaleek aro berria iragarri dute. Alderdien eta sektoreen arteko aliantza eta estrategia egokiak lantzeko unea. Etorkizuneko politika baldintzatzeko unea da. Aukerako unea. Trantsizio garaia ere deitua. ■

Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak eta ARGIAk antolatuta

Nafarroa 1512-2012: atzo konkista, gaur...

Mahai-ingurua:

- Floren Aoiz
- Roldan Jimeno
- Bixente Serrano Izko
- **Moderatzailea:** Xabier Letona

Tokia: Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak • **Eguna:** martxoak 17 • **Ordua:** Arratsaldeko 8etan



argia

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Hiru eleko eredua 40 ikastetxetan

ISABEL CELAÁ Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean hiru eleko eredua. Lehendik ere bagenekien asmo hori zutela eta orain zehaztasun gehiago eman dute. Laster deialdia luzatuko die Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ikastetxe publiko eta hitzartuei, nahi izanez gero hiru urteko esperientzia pilotuan parte hartzeko. Izena emandako guztietatik berrogei aukeratu dituzte, Lehen Hezkuntzako 4. mailakoak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailakoak. 2.000 ikasle inguruk hartuko dute parte. Lehen

Hezkuntzakoak hizkuntza bakoitzean (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) gutxienez bost orduz ari tuko dira eta Bigarren Hezkuntzakoak gutxienez sei orduz.

A, B eta D ereduetaiko ikasleek nolako euskara maila duten jakiteko ikerketaren berri izan genuen. Emaizak ez ziren pozez zoratzekoak. Ikasleek nola eta nolakoa ikasiko dute euskara eredu berri horretan? eta gaztelania eta ingelesa?

Rith 2010

IRLANDAN lehendabiziko aldiz Korrika egingo dute martxoaren 9tik 17ra bitartean. Belfasten abiatu da, 1.600 kilometro egingo ditu, 250 herritatik

pasako da eta Galwayn amaituko da. Gaelikoaren aldeko ekimen hau bi urtean behin egiteko asmoa dute.

Baionako Udala eta EPPren hitzarmena

2010-2012 aldirako luzatu dute Baionako Herriko Etxeak eta Euskararen Erakunde Publikoak euskara sustatzeko hitzarmena. Jean Grenet Baionako auzapezak hitz hauek esan zituen: "Nahi nuke hizkuntza gutxiagotuei buruzko lege bat bozkatzea. Oraingo giltzapean dago hori, erreforma asko abian direlako. Alabaina, ez gara kikilduko eta berriz gaia mahai gaineratzen saiatuko gara".



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Emakumeak Martxan Euskal Herrian

Martxoaren 13a bitartean Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herrian zehar ere ibiliko da, emakumeen eskubideak aldarrikatuz. Euskal Herriko elkarte feministek bat egin dute munduko berrogei herritan ibiliko den Emakumeen Munduko Martxarekin. Iruñetik abiatu da eta bertan bukatuko da larunbatean. Aurten ondokoa errebindikatuko dute: lan baldintza kaxkarrak ez izatea, emakumeen aurkako bortizkeria ezabatzea, ugalketa eta sexu eskubidea, eta elikagaien subiranotasuna.

Orrialde honetatik emakumeek jasaten duten soldata desberdintasuna nabarmendu nahi dugu. Espainiako Estatuan egindako azken azterketaren arabera, emakumeek irabazten duten batez besteko soldata gizonen jaso-tzen dutena baino %26,3 gutxiago da. 2007ko datuen arabera, emakumeen urteko batez besteko soldata 16.943 eurokoa izan zen eta gizonena 22.780 eurokoa. Europar Batasuneko soldata arrakala handienetakoa da, Batasuneko batez bestekoa %17koa baita. Desberdintasun horren jatorriak bi dira, batik bat: emakumeek lan baldintza kaxkarragoak dituzte eta aldi baterako kontratuak (emakumeetan %25 eta gizonetan %17). Lanaldi partzialeko kontratuen %80 baino gehiago emakumeenak dira. Gainera, pobrezia, langabezia, prostituzioak eta sexu esklabotzak emakume izena dute.

Emakumeen eskubideak errespetatzeko, besteetan bezala, politika aktiboak egin behar dira. Administrazioek eta gobernuek, alderdi politikoek, enpresariak, sindikatuak, erakundeak, eskolek, unibertsitateak, herritarrek, norberak bere ahalegina egin beharko du urtero emakumeen nazioarteko eguna beharrezkoa izan ez dadin. Horrek esan nahiko luke emakumeak gizonen pareko eskubideak lortu dituela.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Iñaki Arrutik gipuzkoaeuskara.net-en esanak: "Zergatik euskara EAEn ofiziala dela 30 urte baino gehiago bete direnean Gipuzkoako gazte guztiek gidabaimena gaztelaniaz ateratzen dute? Nahi dutelako? Zenbatek? Euskaraz gai ez direlako? Zenbatek? Euskaraz ezin delako? Zenbatek? (...)

Nik gaztelaniaz atera nuen orain hogeita bost bat urte. Nire ilobak orain atera du, gaztelaniaz hark ere (bi mila euro inguru ordainduta). Euskaraz ateratzeko eskubidea izan, biok izan dugu, aukera normalizatu, ordea, ez nik orain hogeita bost urte, ez nire ilobak orain bost hilabete.

Ikasketa ereduak aukera modan ez dagoen garai honetan, niri autoeskolatan D eredua zabaltzea eta sustatzea legalki beharrezkoa eta linguistikoki lehentasunezkoa iruditzen zait. Baina nola?

Aukera bat Espainiako Estatuari egiten uztea da. Bera da aukera naturala (bere eskumena delako) eta gertatzeko probabilitate gutxi duena (azken 30 urte hauetan egin duenari jaramon ginez). (...)

Bigarren aukera bat, Gipuzkoan gidabaimena euskaraz ateratzearen aldeko plataforma sortzea izan liteke. Hori ere aukera bat da".

Nafarroa Bai-ko korapiloa

MARTXOAREN 15EAN bukatuko da Aralarrek NaBai-ko beste alderdiei emandako epea. Egun horretarako EAK, EAJk eta Batzarrek erantzun beharko diote Aralarri honek koalizioaren egitasmoei buruz egindako proposamenari buruz. Gainerako alderdiek protagonismoa leporatu diote Aralarri, bereziki EAK. Aralarrek, ostera, NaBai-ren programa politikoa orain arte baliagarria izan dela, baina aurrerantzean zehaztu egin behar dela dio, batez ere ezkerreko zutoinak finkatuz, bestela koalizioa edukiz ustuta geratuko dela.

Aralarreko Nafarroako koordinatzaile Txentxo Jimenezek argi aipatu zuen iragan igandean *Diario de Noticias*-en egindako elkarrizketa batean: "Erabakia hartu gabe dago, baina gaur gaurkoz ez dago 2007koaren gisako konpromisoa sinatzeko baldintzarik, koalizioko beste alderdiek ez dute horretarako aldarerik. Gerta liteke, beraz, NaBai ez egotea hauteskundeetan".

Beste alderdiek adierazi dutenez, dagoeneko erantzun diote Aralarren proposamenari. Jimenezek, aldiz, agiri gisa ez dutela ezer jaso zehazten du aipatu elkarrizketan, salbu eta EAJren aldetik.

Zer gertatuko da, hortaz, martxoaren 15aren biharamunean? Aralarrek nekez bete ahal du bere mehatxua, inork ez luke ulertuko eta gainera Jimenezek elkarrizketa horretan argi adierazi du ez duela hala egingo, nahiz eta tituluak eta barruko lerroen arteko informazioak ez duen argi uzten noiz argituko den: tituluak dio "udarako oporren aurretik" eta barruko lerroek "oporretarako jakingo dela", eta martxoaren 15eko ondorengo oporrak Aste Santukoak dira, apirilaren hasieran.



INGO URIZ / ARGAZKI PRESS

NaBai-ren ohiko barne egoerak ez du laguntzen oraingo egoera txukun gainditzeko, baina Batasunaren egoera berriak ere eragin zuzena du NaBairen krisi honetan.

EAK zein Aralarrek NaBai-n sartzeko gonbitea egin diote Batasunari, baina Batzarrek eta EAJk adierazi dute jada haiek ez leudekeela hor, une honetan ez dagoelako horretarako baldintzarik. Batasunak ere molde askotan eta sarri adierazi du NaBai-ren proiektuarekiko arbuioa.

ORDUAN ZER? Ezkerreko ikuspegia modu zabalean hartuta eta perfil abertzalea uztartuta, badirudi logikagoa litzatekeela Batasuna, Aralar eta EAK koalizioa osatzea. Hau da, 1999ko EH, baina EArekin eta Batzarrekin gabe, honek halakorik ez duelako nahi. Maiatzeko greba orokorra eta beste ekimen batzuetan ere –Bilboko urte bukaerako presoek eskubideen aldeko manifestazioa, adibidez,– hiru indar politiko horiek aritu izan dira jada elkarrekin.

Baina, bestetik, Batasuna eta Aralarren arteko harremanak tarte gutxi uzten du halako aukera baterako. Bien

iraganean baino, herritarren nahietan oinarrituko balira beste kontu bat litzateke, baina ez da politikariei eska dakiekeen gauza errazenetakoa.

Alderdien sigla eta ika-mikez gain, badira bestelako ardatz nagusiak balizko koalizioen eraketari begira. Bi erpin berehala ageri dira: bat, ezker abertzale historikoaren estrategiak Hegoalde osoa hartuko du edo onartuko du behingoz EAEk egin dezakeela bere bidea eta Nafarroak berea? Hau da, posible litzateke ezker abertzaleak eta EAK EAEn formula bat aurkeztea eta Nafarroan bestelakoa bideratzea?

Bi, zertarako koalizioa? Zein helburu politiko nagusirekin? 2007koa argia izan zen, UPN Nafarroako Gobernutik ateratzea eta beste alternatiba bat eratzea. Eta horrekin, abertzaleak oinarri ziren koalizio batek Nafarroan inoiz lortutako emaitzarik onena eskuratu zuen NaBaik, ia 78.000 boto eta 12 eserleku Nafarroako Legebiltzarrean.

Abertzaleek, beraz, argitu beharko dute ea orain ere UPN kanporatzea izan behar duen lehentasun nagusia edo indar metaketa soberanistaren nazio helburuei lehentasuna eman behar zaien. Eta, gainera, hori erabaki UPNren eta PPren zatiketarako UPNren hautagaitza inoiz baino ahulago uzten duenean.

Edozein modutan, hipotesi hauek guztiak ezker abertzale historikoa hauteskundeetan egoteko aukerarekin eginak dira. Inork ez daki zer gertatuko den azkenean, baina denbora gutxi geratzen dela bai, eta ez dirudi PP eta PSOE bide hori erraztekoan direnik. Aitzitik, hori galarazteko PP prestatzen ari da jada Alderdien Legearen erreforma. PSeri eta PPri egungo Jaurilaritzako operazioa diputazioetan errepikatzeke balio badie zertarako aldatu ezer?

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

“Change Your Bank”: bankua aldatu edo bankuz aldatu

Ken Burnett marketin alorreko hizlari eta idazle ezaguna da Britainia Handian, Gobernu Kanpoko Erakundeei donazioak bilatu eta lantzen irakasten dien aditua. Orain, bankuetako buruzagien lotsagabekeriaz haserre, “Change Your Bank” mugimendua abiarazi du.

DIRU-GOSEAREN AROA FINI DELA erakutsi diezaiokete bankuei bezeroek, horra *Change Your Bank* ekimenaren sortzaileak *The Guardian* egunkarian plazaratu duen artikulua izenburu deigarria. Deigarria bai, baina zinez mintzo ote da Ken Burnett artikulua egilea, ala marketin jolasa darabil?

Gaur mundu osoa dardarka daukan krisiaren lehen astindua gertatu zenetik, 2008ko abuztuan lehertutako finantza krisitik alegia, beste inon baino gehiago nabari bada bankuen buruzagiekiko haserre hori herrialde anglosaxoietan da, funtsean AEBetan eta Britainia Handian. Horren adierazgarrietako bat da *Change Your Bank*.

“Mundu hau bidegabekoa dela denok dakigu. Beti izan da. Baina ez daukate horrekin zertan denoi burla eginik”. Burlaz eta mespretxuz tratatuak sentitu ziren Burnett eta bere emazte Marie, 35 urtez Royal Bank of Scotland-en (RBS) bezero izan direnak. Eskoziako erakunde gotorretakoaren eta munduko banku emankorretako baten bezero. Esan nahi baita, ustez munduko emankorrena... 2008an Londresko gobernu nazionalizatzerak behartuta egon zen arte.

2001etik RBSk sekulako hedatze lanak eginak zituen munduan barrena, bera baino txikiagoko bankuak

bata bestearen ondoren erosiz eta beste banku, aseguru eta finantza erakunde ugari kapital zati handiak bereganatu. RBS gero eta urrezkoago hark Fred Goodwin zeraman lemazain. Goodwin abizena euskaraz “irabazi ona” edo “garaipen ederra” eman genezake, izena eta izana dena bat.

Baina heldu zen zorigaiztoko 2008a, AEBetako zabor-hipoteken gainbehera estreina, merkatuetan likidotasuna agortzea ondoren, jarraian CDOak (*Collateralized Debt Obligation*) bezalako espekulaziozko tresna ulergaitzen gainbehera... eta erremediorik gabe hondoratzen hasi zen Royal Bank of Scotland.

Milaka akziodun eta bezero larrubixirik utzita suntsituko ez bazen, 2008ko urriaren 13an Londresko gobernuak bereganatu zuen RBS. Tratuaren barruan Fred Goodwin presidente megalomano eta harroaren dimisioa sartu zen. Aurretik, unerik gozoenean akzioko 18 libera esterlina balio zuen bankua akzioko libera baten 65,70 penike balio izateraino amildua zuen.

2002an *Forbes* aldizkari famatuak Fred Goodwin urteko enpresaburu izendatu zuen. 2003an eta 2006an Eskoziako gizonik boteretsuena izendatu zuen *Scotland on Sunday* egunkariak. 2003an Europako urteko bankaritzat saritu zuten. 2004an

Ezkerreko irudian, *Deadline Scotland* gunetik hartuta, Fred Goodwin bankuburua, Royal Bank of Scotlandeko nagusi zeneko prentsaurreko batean. Eskuinekoa *Hartenziel* blog holandarrean aurkitu dugu: Ingalaterrako hiriren bateko horma horretan Fred Goodwin ehizatzeo afixa eskegi dute: RBSko buruzagi ohia bilatzen dela dio, berak urtean 4,2 milioi libera irabaziz bankua 20.000 milioiko bankarrotara eramanez. Lapurretaz, arpilatzeaz eta arduragabekeria kriminalaz akusatzen dute, milaka lanpostu galdu izanaren erantzukizuna egotziz. Gero eta handiagoa da soldata astronomikoak sakelaratzeko dituzten ugazaben kontrako haserre. Besterik da egonezin hori nolako mugimendutan mamituko den, ezkerrean bezala jo baitezake faxismo aldera.


Elisabeth erreginak *Sir* egin zuen. 2008an London Business School-eko ohorezko bazkide izendatu zuten. Horrelako gizon urrezkoari nola utzi bankutik joaten erretiro egoki bat gabe?

Laster hasi ziren zabaltzen Goodwinen bizirik zen arte urtean irabaziko zituen dirutzen xehetasunak. 703.000 libera (774.500 euro) urtean. Erretreta txukuna 2008ko urte beltzean 24.000 milioi libera esterlinako galerak egin zituen RBSko buruarentzako.

Ez dugu lotsarik, ez dugu beldurrik

Ken Burnettek dio ez duela onartuko estatuaren diruz —hau da, herritarren zergaz— erositako bankuak muturraren aurrean barre egin. “Fred eta bere kideek banku bat hondoratu baldin badute, zergatik horrelako saria? Seguruenik orain bankuan daudenek beste hainbeste edo gehiago irabazten dutelako?”.

Egia da Ken Burnett ez dela edozein bezero. Liburu mordoskaren egile da, gehienak marketin kontuez, baina baita naturarekiko bizipenez ere. Fama dauka Gobernu Kanpoko Erakundeei eta kolore guztietako fundazioek erabiltzen duten *fundraising* edo donazio bilketan aditua delako. Argialetxe txiki baten jabe ere bada emaztearekin.



“Jende arruntari zail egiten zaio horrelako eskandaluengatik protesta egitea. Guk zera egin dugu, RBS bankuko jendearekin —errespeta-tzen eta estimatzen ditugunekin, enplegatuekin— gai honetaz egin ditugun harreman guztiak idatzi eta plazaratu, ozen esateko aski dela. Bankuz aldatzera goazela”.

Change Your Bank blogean Burnet-tek kontatu du bankuari lehen pro-
testa bidali ziotenean, RBSko bi
gizon hubildu zitzaizkiela senar-
emazteei etxeraino. Urduri omen
ziruditen, aitortu zieten latsa ema-
ten ziela gertatu zenak, baina ban-
kuan gauzak aldatzen ari zirela. Hori
zertifikatzen zuen gutun bat ere era-
kutsi zieten, RBSko buruzagi exeku-
tiboak, Stephen Hester-ek, sinatua.

Ez osorik konbentziturata baina
bankuari azken aukera ematea era-
baki zuten Burnett senar-emazteek.
“Baina esan genien: OK, urte bete
daukazue erakusteko. Aldatzen
bazarete, aitortuko dut publikoan.
Baina, hala ez bada, bankuz aldatu-
ko gara, publikoan hori ere”.
Horrela sortu zen *Change Your Bank*
kanpaina.

Ideiak ximplea dirudi: berdintsu
pentsatzen duten jendeak bildu eta
denen artean bankuei jokabidez
aldaraztea. Hasi besterik ez da egin,
eta oraingoz emaitza handirik gabe.
Burnettek aitortu du blogean:
“Berrikitan egona naiz etxean azal-
du zitzaidan exekutibo harekin, eta
esan zidan beste kolega batzuekin
hitz egin ondoren erabaki dutela

Change Your Bank bezalako kanpaina
batek min handirik ez diela egiten.
Horra, bankuek nahi dutena egin
dezaketela, menderakaitzak direla”.

Bankuetako buruzagiekiko hase-
rrea mobilizatzen ahalegintzen da
Burnett. Funtsean, finantzetako eli-
teek haragiztatzen dute herritarren
artean gero eta zabaldago dagoen
iritzia: azken hamarkadotan izugarri
handitu da Mendebaldeko herrialde
abaratsetan bertan minoria abera-
tsek irabazten dutenaren eta gehien-
goaren irabazien arteko tartea.

“Mundua beti izan da bidegabea
—idatzi du Ken Burnettek—. Gutxie-
nez Reagan eta Thatcherren garaie-
tatik paradigma izan da aberatsak
abersatagotzea eta pobreak pobrea-
gotzea. Blair eta Brownen 12 urtez
agindu ondoren, are bidegabekeria
handiagoa da, ez txikiagoa. Eta hala
segituko du herritarrok geldiarazten
ez badugu”.

Blogean bankuari kexua azaltze-
ko eta presio egiteko informazio
praktikoak eskaintzen dira. Adibi-
dez, Barclays, HSBC, Halifax edo
RBS bankuen bezero izanez gero
erabil daitezkeen gutun ereduak.
Helburu nagusietako bat burrunba
sortzea denez, Twitter eta Facebook
usatzen dituzte blogaz gain. Horre-
kin guztiarekin *Change Your Bank*
bankugintzaren atal zehatzak ezta-
baidatu nahi ditu: diru-etxeen gar-
dintasuna, buruzagien *bonus* gehie-
gizkoak, eta abar. Besterik ez, baina
hori guztia.

Hamarkada baterako heldu den
ekonomi depresioak klase guztietako
haserreak piztu ditu. Klase ertaine-
tako jendeenak ere bai. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Itziar Antiguada

Haritik tira eta brodatzeari eutsi

Urrian ezker abertzalearen itzal handiko zenbait lagunak kontra izandako sarekada haren ostean mugimenduak azkartu egin dira. Azalekoak eta, seguruena, barrukoak ere, burujabetzaren esparruan diharduten eragile asko eta askotarikoak astindu baitzituen gertaera hark. Geroago izan diren bidarren artean daude Altsasuko adierazpena, *Zutik Euskal Herria* ebazpena edota norbanako independentisten sarea. Litekeena da gogoeta honek argia ikusi aurretik berri-rik ere izatea.

Mugimenduok urtetako mataza askatzen hasia den seinale hartzeko motiboa badago oraingoan, behar zen haritik tiraka hasi delako. Hainbestetan aipatu den bide-orria abian da, zorioneko estrategia eraginkorra helbide; ziklo berria behingoz. Puntu eta bereiz, ez puntu eta jarrai, oraina bada eta geroa izango bada neurri inportante batean iragane-koa izan delako bada ere.

Ziklo berriak, eraginkorra izango bada, bide eta bidaide berriak eskatzen ditu. Indarrak metatzaren beharra ez dator eragile batzuek aspaldi jasaten duten apartheid egoeratik, egoera politikoa behingoz blokeotik askatzeko eragile askoren behar gaurkotutik baizik. Izan ere, hurbileko geroan Euskal Herriko politika piramide baten inguruan gauzatuko bide da, unionistak, jeltokideak eta ezkerreko subiranistak erpin banan direla. Piramide lar ximplea izan daiteke hori, ados, baina goiko politikari begira ezinbestekoa da denbora baterako, marko demokratikoa gauzatu arteko denbora, behintzat. Eta goiko politikan eragina izatea beharrezkoa da, nahikoa ez bada ere, lekuan leku eta egunean egun egin beharreko eraldaketak egiten laguntzeko. Bidaide berriak, beraz; Euskal Herria subjektu hartzen dutenekin helbideak konpromisoez adostuta, ezkerreko sub-



DANI BLANCO

ranisten erpina indartze aldera. Helbide berriak, beraz; bide demokratikoak, bai, presio dinamikari ekiteko, herri aktibazioa elikatzeke, Europako sentsibiltate batzuk astintzeko...

Beharrezkoak diren borroka moldeak badoaz euren lekua hartzen bide-orrian: masarena, ideologikoa, instituzionala. Ideologikoa da funtsezkoa, logika batean berak elikatzen baititu besteak; are gehiago hauteskundearen eremuan, nola edo hala, sartu beharra denean. Ideiak, eta ez bakarririk nagusiak, garbi, Herri hau burujabetzara ezkerreko erretik eramateko, politika azpiko sektore guztietan; krisi egoeratik sozialismo identitario berrituaren bidetik ateratzeko. Hortaz, ezker abertzalearen barneko eztabaidak oso elementu balio-itsuak ekarri dizkio ibilbide berriari; trantsizioak onartu beharra, kasuko. Prozesu demokratikoa mailaz mailakoa irudikatu


da, negoziazioaren ingurukoa bera ere, orain gutxira arte ordulariaren kontra egin nahi zena tarteko helmugak dituen ibilbide bezala aurkeztuta. Pragmatismoa ote? Beharbada bai, baina eraginkorra, eraldatzailea eta biderkatzailea egitea da erronka.

Zalantzak? Altxa beza eskua ez duenak. Nik neureak gure erpinean. Ezker abertzalearen eztabaidatik nagusi atera den *mandatua* horko sektore guztiek beteko ote duten; Irlanda gogoan honetan ere. Norbanakoez osatutako eta alderdiez eratutako esferen arteko hartu-emanen ingurukoa. Alderdien aliantzako jardunbidean sakontze

ideologikoak izango duen pisua. Ezker abertzaleak legezko gorputz politiko propioa. Hauteskundearen erronka. Galdera gehiago erantzunak baino. Baina lehen nituen funtsezko galderek badute orain erantzun egokia, niretzat behintzat. Hasi zaio matazari haritik tiraka; brodatzen hasteko garaia da, zalantzak zalantza. ■

Zalantzak? Altxa beza eskua ez duenak. Nik neureak gure erpinean. Ezker abertzalearen eztabaidatik nagusi atera den *mandatua* horko sektore guztiek beteko ote duten; Irlanda gogoan honetan ere. Norbanakoez osatutako eta alderdiez eratutako esferen arteko hartu-emanen ingurukoa. Alderdien aliantzako jardunbidean sakontze ideologikoak izango duen pisua

ASTE HONETAKO zozketak



EllaUri Hotela

Asteburu pasa
2 lagunentzat

Zeanuri BIZKAIA

www.ellaurihotela.com

1



Urki txakolina

Txakolindegira bisitaldia
10 lagunentzat

Askizu Auzoa
Getaria GIPUZKOA

www.urkitxakolina.com

2



Amagoia í Etxekar


AiE diseinuzko soinekoa

Donibane kalea, 76 - 3º
Pasai Donibane, GIPUZKOA

La Bretxa Merkatal Gunea
goi solairua
Donostia, GIPUZKOA

www.amagoiaietxekar.com

3



Far Westeko Euskal Herria

Pamiela Argitaletxea

5 liburu opari

Agustindarren industrialdea,
Soltate G kalea
Iruñea, NAFARROA

www.pamiela.com

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Irune Eguen Balantzategi (Elorrio)
- Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)
- Gorka Bueno Mendieta (Bilbo)
- Salba Pagegi Arriola (Markina-Xemein)

POLTSIKO AGENDA 2010, ARTEZ

- Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)
- Olaia Elortza Iñarra (Zegama)
- Galdakaoko AEK Euskaltegia (Galdakao)
- Oihana Goiriena Foruria (Gernika-Lumo)
- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
- Esteban Odriozola Etxabe (Zumaia)
- Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)
- Kepa Zarate Agirre (Gasteiz)

GUIKURI

- Dioni Beraetxe Aranburu (Usurbil)

KOKORIKO LIBURUA, TXALAPARTA

- Mikel Ayllon Corral (Laudio)
- Miren Garcia Dalmau (Hernani)
- Joxan Apaolaza Bernedo (Oñartzun)
- Izaskun Elizburu Urkizu (Zarautz)
- Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)

KIROLAZ BADAKIT

- Arrate Aginagako Zaharren Egoitza (Aginaga)
- Aitor Atxega Zubikarai (Larraul)
- Ramon Andrinua Lazkano (Bilbo)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



EKIN

S. Coop.

BROTXAKETA ETA IJEZKETA TEKNOLOGIA - Erramintak eta Makinak
TECNOLOGIA DE BROCHADO Y LAMINADO - Herramientas y Máquinas

Pol. Ind. Arriagane, Boroa A., z/g. ☒ P.K. 31 / E-48340 AMOREBIETA (Bizkaia)


Telefonoa: +34 94 673 11 12

Faxa erramintak/ Fax Htas: +34 94 630 04 51

Faxa makinak/ Fax Máquinas: +34 94 630 04 52

E-maila: ekin@ekin.es

Web: www.ekin.es



Fabrikazio programa

Kanpotiko brotxaketarako makina hidrauliko bertikalak.
Barnetiko brotxaketarako makina hidrauliko bertikalak.
Brotxak zorrozteko makina erdiautomatikoak.
Brotxak zorrozteko C.N.C. makinak.
Ildaskak ijezteko makinak.
Barnetiko brotxak otxabuketarako, ildaskatzeko zuzenak eta helikoidalak.
Kanpotiko brotxak altzairu lasterrean eta metal gogorrean.
Brotxa-etxe eta pieza finkatzeko tresneria.
Elikagailu automatikoak piezen karga eta deskargarako.

Ijezteko kremailerak.

Programa de fabricación

Brochadoras verticales hidráulicas de exteriores.
Brochadoras hidráulicas verticales de interiores.
Afiladoras semiautomáticas de brochas.
Afiladoras C.N.C. para brochas.
Laminadoras de estrías.
Brochas para interiores de escariado, estriadas y helicoidales.
Brochas para exteriores de acero rápido y metal duro.
Portabrochas y útiles de sujeción de pieza.
Alimentadores automáticos para carga y descarga de piezas.
Cremalleras de laminar.